


# IN KLU SIOA

INKLUSIOA UPV/EHU<sub>n</sub>:  
IRAKASLEENTZAKO GIDA

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

---

# Aurkibidea

---

## A. SARRERA

1. Diseinu Unibertsala: Pertsona Guztientzako Diseinua
2. Gidaren helburua

## B. HEZKUNTZA PREMIA BEREZIAK DITUZTEN IKASLEEI ERANTZUTEKO JARRAIBIDE OROKORRAK

1. Irakasleen jarrera
2. Ikasgelako giroa
3. Curriculumeko alderdiak
4. Aholkularitza eta koordinazioa

## C. HEZKUNTZAREN ERANTZUNA IKASLEEN PREMIA DESBERDINEI

1. Entzumen desgaitasuna
  - 1.1. Ezaugarriak
  - 1.2. Interakziorako jarraibideak
  - 1.3. Ikaskuntzarako eta ebaluaziorako egokitzapenak eta estrategiak
  - 1.4. Laguntzarako baliabide pertsonalak eta teknikoak
2. Ikusmen desgaitasuna
  - 2.1. Ezaugarriak
  - 2.2. Interakziorako jarraibideak
  - 2.3. Ikaskuntzarako eta ebaluaziorako egokitzapenak eta estrategiak
  - 2.4. Laguntzarako baliabide pertsonalak eta teknikoak
3. Desgaitasun motorikoa
  - 3.1. Ezaugarriak
  - 3.2. Interakziorako jarraibideak
  - 3.3. Ikaskuntzarako eta ebaluaziorako egokitzapenak eta estrategiak
  - 3.4. Laguntzarako baliabide pertsonalak eta teknikoak

4. Asperger Sindromea
  - 4.1. Ezaugarriak
  - 4.2. Interakziorako jarraibideak
  - 4.3. Ikaskuntzarako eta ebaluaziorako egokitzapenak eta estrategiak
  - 4.4. Laguntzarako baliabide pertsonalak eta teknikoak
5. Ikasteko zailtasunak
  - 5.1. Ikasteko zailtasun espezifikoak: Dislexia
    - 5.1.1. Ezaugarriak
    - 5.1.2. Interakziorako jarraibideak
    - 5.1.3. Ikaskuntzarako eta ebaluaziorako egokitzapenak eta estrategiak
    - 5.1.4. Laguntzarako baliabide pertsonalak eta teknikoak
  - 5.2. Arreta gabeziaren nahastea eta hiperaktibitatea (AGNH)
    - 5.2.1. Ezaugarriak
    - 5.2.2. Interakziorako jarraibideak
    - 5.2.3. Ikaskuntzarako eta ebaluaziorako egokitzapenak eta estrategiak
    - 5.2.4. Laguntzarako baliabide pertsonalak eta teknikoak
6. Nahaste psikikoak
  - 6.1. Ezaugarriak
  - 6.2. Interakziorako jarraibideak
  - 6.3. Ikaskuntzarako eta ebaluaziorako egokitzapenak eta estrategiak
  - 6.4. Laguntzarako baliabide pertsonalak eta teknikoak
7. Gaixotasun organikoak
  - 7.1. Ezaugarriak
  - 7.2. Interakziorako jarraibideak
  - 7.3. Ikaskuntzarako eta ebaluaziorako egokitzapenak eta estrategia
  - 7.4. Laguntzarako baliabide pertsonalak eta teknikoak

A

---

SARRERA

---



Munduko Osasun Erakundeak fenomeno konplexutzat definitzen du desgaitasuna, giza organismoaren ezaugarrien eta bizitoki duen gizartearen ezaugarrien arteko interakzioa islatzen duen fenomenotzat.

Desgaitasuna hitz orokorra da, eta bere barne hartzen ditu urritasunak, jarduerara mailako mugak eta parte-hartzearen murrizketak. Urritasunak gorputzaren egitura edo funtzio batengan eragina duten arazoak dira; jarduerara mailako mugak ekintzak edo zereginak gauzatzeko zailtasunak dira, eta parte-hartzearen murrizketak bizitzako egoeretan parte hartzeko arazoak dira.

Hortaz, testuingurua funtsezkoa da desgaitasuna definitzeko, horrek zehazten baitu, neurri handi batean, zer premia sortzen diren norbanakoaren ezaugarriekiko interakzioan. Desgaitasuna duen pertsona egoera desberdinen aurrean moldatzen da, eta era berean, egoera horiek eragina dute haren garapenean, autonomia areagotuz edo mugatuz. Testuinguruak ez baditu sustatzen haren ahalmenak eta trebetasunak, oztopo sozial eta kulturalak ezartzen dizkio. Horrexegatik, ikaslea matrikulatua dagoen unibertsitatearen ardura da ingurune irisgarri bat sortzea, norbanakoari garapen pertsonal nahiz profesional egokia bermatuko diona.

Inklusioa guztiok elkarrekin bizitzeko proposamena da, eta hezkuntza nahiz ezagutza ditu oinarrian. Hori dela eta, hezkuntza erakunde batek komunitate osorako balio aberasgarritzat hartu behar ditu langileen aniztasuna, irakasleena eta ikasleena. Hezkuntza inklusiboaren alde egiteak esan nahi du elkarrekin erlazionatuta dauden erakunde jarduerak planifikatu behar direla, jarduerara koordinatuak, biztanleen bizi kalitatea hobetuko duten helburuak lortzeko, pertsona ororekiko begirunea abiapuntutzat hartuta.

## **1. Diseinu Unibertsala: Pertsona Guztientzako Diseinua**

Irisgarritasun Unibertsala inguruneak, produktuak, zerbitzuak eta sistemak ahalik eta pertsona gehienek erabiltzeko modukoak izan daitezen helburutzat duen filosofia da. Giza aniztasunean, gizarte inklusioan eta berdintasunean



oinarritutako diseinu eredu bat da. Guztientzako Diseinua (Universal Design) kontzeptua 2004ko maiatzaren 9ko Stockholmeko Adierazpenean dago jasota, non honela dagoen definituta haren helburua:

*“...pertsona guztiek gizarteko alderdi guztietan parte hartzeko aukera berdinak izan ditzaten ahalbidetzea..., [eta horretarako], ingurune eraikiak, eguneroko objektuek, zerbitzuek, kulturak eta informazioak [...] irisgarriak eta erabilgarriak izan behar dute gizarteko kide guztientzat, eta bat etorri behar dute giza aniztasunaren bilakaera etengabearekin”.*

Hezkuntzara aplikatutako Diseinu Unibertsalak edo Pertsona Guztientzako Diseinuak zera sustatzen du, curriculumak, metodologiak eta ebaluazioa erabat inklusiboak izatea ikasle guztientzat (ez hezkuntza premia bereziak dituztenentzat bakarrik). UNESCOren esanetan, Hezkuntzako Nazioarteko Bulegoaren 2008-2013rako estrategiaren arabera honako hau litzateke Diseinu Unibertsal eta Inklusiboa:

*“Prozesu etengabea bat, helburutzat duena pertsona guztiei kalitatezko hezkuntza eskaintzea, ikasleen eta komunitateen aniztasuna eta ikaskuntzako premia zein gaitasun desberdinak, ezaugarriak nahiz itxaropenak errespetatuz eta diskriminazio modu oro ezabatuz” (UNESCO, 2008, 3. or.).*

Aukera berdintasunaren aldeko planteamendu holistiko eta berritzaile horrek berekin dakar aniztasuna balio garrantzitsuenetako bat dela onartzea, hau da, hezkuntza sistema ikasle guztien behar anitzetara egokitzea, irisgarritasun eta parte-hartze mugak gaindituz kalitatezko hezkuntzaren bidez.

Pertsona guztientzako diseinuaren ikuspegitik, ikasle oro bere ikaskuntza prozesuaren jabe izan dadin, honako alderdi hauek aintzat hartu behar dira curriculumak diseinatzean:

- Irekiak, eskuragarriak eta malguak izan behar dute, eta ikasleen aniztasunera egokitzeak aukera izan behar dute. Ez dute ikasleek egokitu



behar curriculumaren ezaugarrietara; curriculumaren diseinuak egokitu behar du ikasleen premia edo ezaugarrietara.

- Hasieratik diseinatu behar dira, ikasle guztiek etorkizunean izan ditzaketen premiei erantzun ahal izateko.
- Malguak izan behar dute helburuetan, metodologian, baliabideetan, materialean eta ebaluazio moduetan; hartara, ikasteko eta parte hartzeko mugak murriztuko dituzte, eta ikasle guztien premiei erantzuteko nahiz aukera berdintasuna bermatzeko laguntzak optimizatuko dituzte.
- Diseinu horri esker, gero ez lirateke hainbestetan egin behar curriculumaren egokitzapen espezifikoak dibertsitate funtzionala duten ikasleentzat.

2006. urtean, ONCE Fundazioaren eta Migrazio eta Gizarte Zerbitzuetako Institutuaren (IMERSO) laguntzaz, Pertsona Guztientzako Diseinuaren Koordinakundeak Libro Blanco para el Diseño para todas las personas en la Universidad (García de Sola et al., 2006) izeneko lana argitaratu zuen, non asmo handiko heziketa ekimen bat proposatzen zuen, helburutzat zuena Irisgarritasun Unibertsaleko programa bat sustatzea unibertsitateko hezkuntza sistema osoan, eragina izango zuena gizartean eta ingurune seguruak, osasungarriak, funtzionalak, ulergarri eta estetikoak, eta, batik bat, erabiltzaile guztien aniztasunarekiko begirunetsuak orokortuko zituen. Gaur egun, Espainiako Unibertsitateen Errektoreen Batzarrak (CRUE) ematen dio jarraipena ekimen horri, eta Pertsona Guztientzako Diseinuaren ikuspegia oinarritzat duen prestakuntza, eztabaida eta sentsibilizazioa sustatzen ditu Estatu osoko titulu eta unibertsitate guztietan. Aurkeztutako proposamena erreferentziazko gida ireki eta malgua da, zeinak sustatzen duen Pertsona Guztientzako Diseinua curriculum guztietan txertatzea eta proposatzen duen unibertsitate bakoitzak hobekien datorkion formula aukera dezala diseinu hori bere ikasketa planaren egituran eta antolakuntzan sartzeko. Horren bidez, hezkuntza prozesuan esku hartzen duten eragileek jarrera aldatzea lortu nahi da –informazioaren eta sentsibilizazioaren bidez–, uler dezaten eraldaketak eta egokitzapenak testuingururi dagozkiola, eta ez pertsonari.

Irisgarritasun Unibertsalarekiko konpromisoa hartuta, UPV/EHUk bere zerbitzu bokazioa eta gizartearekiko konpromisoa berresten ditu, apustu irmoa eginez aukera berdintasunaren alde eta diskriminaziorik ezaren alde. Ez da mugatzen



ezgaitasunen bat duten pertsoneri zerbitzu jakin batzuk eskaintzera; pertsona guztien arreta integralaren aldeko apustua egin nahi du, irisgarritasunaren ikuspegia txertatuta unibertsitateko zerbitzu, ingurune eta ekipamenduetan. Erabateko irisgarritasuna lortu nahi du, hainbat neurri hartuta: muga guztiak ezabatuta ikaskuntzan nahiz partaidetzan, bai fisikoak, bai arkitektonikoak, bai komunikaziozkoak; laguntza tekniko funtzionalak erabilita, zeinak aukera emango dieten erabiltzaileei osterantzean egin ezingo lituzketen jarduerak egiteko; jendaurrean lan egiten duten langileak prestatuta, eta Unibertsitatean irisgarritasuna kudeatzeko sistema bat ezarrita.

Hala, gure Unibertsitatean gero eta ugariagoak diren desgaitasuna duten ikasle matrikulatuak, irisgarritasuna, parte-hartzea eta ikaskuntza hobetuz gero, ikasle horiek ikasgelak eta jarduerak partekatuko dituzte gainerakoekin, eta, ondorioz, gure egresatuak aniztasunaren errealitate konplexua ezagutzen duten profesionalak izango dira, eta errealitate hori aintzat hartuko dute, ezagutzaz, euren etorkizuneko lanbideetan.

Pertsona bakoitzak erakunde batean garatzen dituen jardunbide zehatzak erakundearen beraren isla dira, eta, horrexegatik, gure Unibertsitateko irakasleei baliabideak eta prestakuntza emanaz gero, inklusioaren kultura praktikoa sortuko da, pixkanaka, erakundeak bere estatutuetan eta plan estrategikoan sustatzen duen filosofia islatuko duena.

Hasiera-hasieratik, aintzat hartu nahi izan dira UPV/EHUko Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzuak nahiz beste unibertsitate batzuek prestatu eta garatu dituzten baliabideak, zenbait dokumentu eta gida, eta, hortaz, haien lanak ekarri duen aurrerakuntza handia aitortu nahi izan da. Halaber, kontuan hartu da hezkuntza inklusiboaren arloko literatura zientifikoa, zeinak garatzen duen orain arte hezkuntza sistemetatik baztertuta egon diren pertsonen edo sistema horien curriculumaren bazterretan eskolatzen ari diren pertsonen hezkuntza eskubidea. Hezkuntza inklusiboak egiten duen moduan, dokumentu honek oinarritzat duen filosofiak Parrillaren (1996) ideia bat azpimarratzen du, hots: ikasle batzuen zailtasunek hezkuntza komunitate osoa aldatzeko eta hobetzeko bideak erakusten dizkigutela.





Azken batean, gida hau UPV/EHUK eskaintzen dituen tituluetan matrikulatu nahi duen orori kalitatezko zerbitzu publikoa emateko hartua duen konpromisoaren adierazpena da. Zehazki esanda, unibertsitateko irakasleei orientazioa eta laguntza emateko gomendio batzuk dira, helburutzat dutenak irakasleek ikasle guztiekin aukera berdinetan lan egin ahal izateko beharrezkoak dituzten ezagutzak, estrategiak eta baliabideak eskuratzea.

## 2. Gidaren helburua

Gida honen xedea da irakasleei laguntza ematea, gure ikasgeletako ikasleek izan ditzaketen hezkuntza premiei egokiro erantzuten jakin dezaten. Irakasleentzako tresna bat izan nahi du, oinarritzko ezagutza izan dezaten desgaitasun bakoitzaren ezaugarriari eta ondorio funtzionalari buruz, eta jakin dezaten interakziorako zer jarraibide orokor aintzat hartu behar dituzten ikasle bakoitzaren egoeraren arabera, baita zer egokitzapen eta irakaskuntzarako zein ebaluaziorako zer estrategia kontuan har ditzaketen ere; horrez gainera, ikasleek euren hezkuntza premia bereziak arintzeko egoera bakoitzean erabil ditzaketen baliabide pertsonal eta tekniko lagungarrien zerrenda bat ere eskaintzen du. Azken batean, unibertsitate inklusiboagoa lortzen lagundu nahi du.

Baina gida honen helburuak ez du ezertarako balioko baldin eta irakasle gisa ez bagaude prest gure jarrera aldatzeko, ikasle guztiak aintzat hartzeko, haien premiak antzemateko eta kasu nahiz egoera bakoitzean beharrezkoak diren curriculum egokitzapenak egiteko. Ulertu eta jabetu behar dugu gure ikasleen eskubidea dela, haien egoera edozein izanda ere, eta gure irakasle betebeharra dela egoera horietako bakoitzari erantzun egokia ematea, ikasle guztiek lor dezaten merezi duten garapen profesional handiena, muga fisiko, psikiko edo sensorialak ibilbide akademikoan oztopo izan gabe.

# B

---

HEZKUNTZA PREMIA BEREZIAK  
DITUZTEN IKASLEEI ERANTZUTEKO  
JARRAIBIDE OROKORRAK

---



Desgaitasun bakoitzari buruzko alderdiak zehaztu aurretik, egoki deritzogu jarraibide orokor batzuk nabarmentzeari; jarraibide hauek inplizituki jasota daude gida honetako atal guztietan, eta gure ustez baliagarriak dira irakasleentzat, hezkuntza premia bereziak dituzten ikasle guztiei hezkuntza erantzun inklusiboa eta egokitua eman ahal izateko abiapuntu gisa.

## 1. Irakasleen jarrera

- Irakasleek ikasleen ezaugarriak eta premiak ezagutu behar dituzte, eta arreta berezia eskaini behar diete hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleei.
- Irakasleek ez dute gelan identifikatuko desgaitasuna duen ikaslea, baldin eta ikasleak berak ez badie berariazko baimena eman bere egoeraren berri emateko ikaskideei. Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak ere ikasleei buruzko informazioa konfidentzialtasunez erabiltzera behartzen gaitu.
- Irakasleek desgaitasuna duten ikasleekiko antsietatea arindu behar dute: ohiko eta ezusteko sintomak ezagutu behar dituzte [postura aldatzeko beharra, komunera maiz joateko premia, mina izatea, sendagaiak hartu beharra (gelatik ateratzea...), krisi posibleak (epileptikoak, min krisiak...), eta nola jokatu eta zer protokolo erabili jakin behar dute.
- Desgaitasunen bat dutenek beste inork baino hobeto dakite zer egin dezaketen eta zer ez. Komeni da inoiz ez erabakitzea haien ordez jarduera batean parte hartu behar duten ala ez, eta, aitzitik, beti galdetzea euren premiei buruz eta curriculumak eskuragarriagoa izateko ezar genitzakeen egokitzapenei buruz.
- Naturaltasunez jokatu behar da, eta ikaslea ez aurrez epaitu izan ditzakeen ezaugarri fisiko edo psikiko jakin batzuegatik. Ez da pentsatu behar ezaugarri horiek ezinbestean lotura dutela garapenaren eta gaitasun kognitiboaren zailtasunekin edo atzerapenekin.
- Irakasleek behar eta erabil ditzaketen baliabide edo laguntza teknikoei mugak ez jartzea komeni da: zeinu hizkuntzako interpretea, itsu txakurra, azpigituluak, aurretik emandako apunteak, ordenagailua,...



## 2. Ikasgelako giroa

- Desgaitasuna duten ikasleek izan ditzaketen premiak gogoan izanik, irakasleek ingurune egokia ahalbidetu beharko dute, jarraibideak eta erantzukizun partekatuak ezarriz eta jarrera kooperatiboak nahiz laguntza pertsonalak zein materialak sustatuz ikaskideen artean. Ildo horretan, erabakigarria izango da irakaslearen erreferentzia, zer harreman ezartzen duen hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleekin eta zer jarrera hartzen duen haiekiko.
- Komeni da ikasgelan aniztasunarekiko errespetuzko giroa eta komunikazio arina lortzea, ikasle bakoitzaren egoera eta premiak kontuan hartuta eta haien konfiantza, autonomia pertsonala eta unibertsitateko bizitzako parte-hartzea sustatuta. Horretarako, ezinbestekoa izango da irakasleen nahiz ikasleen inplikazioa, baita desgaitasuna duen ikaslearena ere.
- Ikasle boluntarioen laguntza izatea mesedegarria izango da, hau da, kredituen truke “Desgaitasunak dituzten ikasleei laguntzako programan” izena ematen duten ikasleen laguntza. Ikasle horiek desgaitasunen bat duten ikaskideentzako jarduera solidarioetan eta lankidetzak jardueretan parte hartzen dute. Programa hori UPV/EHUko Ikasleen eta Enplegagarritasunaren arloko Errektoreordetzak kudeatzen du, Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzuaren bitartez.

## 3. Curriculumeko alderdiak

- Ikaskuntzaren Diseinu Unibertsalaren printzipioak aplikatu behar dira irakasgaien curriculumak diseinatzean, eta curriculumak, hezkuntza metodologiek eta ebaluazioak ikasle guztientzat egokiak izan behar dute, haien aniztasuna aintzat hartuta, hezkuntza premia bereziak dituzten gorabehera. Curriculum diseinu inklusiboa aurreikusi behar da, eta, horretarako, aldeztu behar da nola erantzun ikasle guztien premien aniztasunari, irisgarritasun eta parte-hartze mugak gaituz.



- Pertsona guztientzako diseinua sustatu behar da: irakasleek bere irakasgaiaren programazioan pertsona guztientzako diseinuaren ikuspegitik eskuragarriak diren baliabideak aurreikusten baditu neurri handi batean, ikasturtean zehar curriculuma egokitu behar izatea ekidin egingo du.
- Curriculumaren egokitzapenak egin behar dira: inklusioa sustatzeko, irakasleek ikasle guztiak aintzat hartu behar dituzte irakasgaiaren diseinuan. Egokitzapena irakasleak ikasleengana hurbiltzeko erantzun gisa hartu behar da; haien premia espezifikoak ulertzeko modu bat da, eta, horren bidez, irakasleek jarrera positiboa adierazten dute, desgaitasunak eta, oro har, hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen egoera ulertzeko eta, ondorioz, baita irakaskuntzako programetan nahiz gidetan premia horiek berekin dakartzaten ondorio funtzionalak kon-tuan hartzeko ere.
- Tutoretzak: alderdi operatiboan, aurretik azaldutako guztiak berekin dakar desgaitasunak eta, oro har, hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleekiko komunikazio etengabea bermatuko duten tutoretzak anto-latu ahal izatea; irakaskuntzarako euskarriak egokitzea; praktiketarako laguntza osagarriak antolatzea; lanak entregatzeko denboren egoki-tzapenak adostea, edo bestelako ebaluazio probak ezartzea, guztiek modu justuan egin ditzaten bermatzeko. Bestelako proba horietan, oi-narrizko edukiak arriskuan jarriko ez dituzten egokitzapenak eskainiko dira, ikasle guztientzako ekitatiboak izango direnak, ebaluazio proze-sua egokituz baina ez, ordea, titulu bakoitzean eskatutako gaitasunaren arabera erdietsi beharreko emaitzak. Hori guztia lortzeko, funtsezkoa da lehenengo tutoretzak ikasturtea hasi aurretik egitea.

#### 4. Aholkularitza eta koordinazioa

Prozesu honetan, irakasleek Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzua-ren aholkularitza jasotzen dute une oro. Zerbitzua Ikasleen eta Enplegaga-rritasunaren arloko Errektoreordetzaren mendekoa da, eta arretarako unita-teak ditu UPV/EHUko hiru campusetan. Lehenengo, bitartekari lanak egiten



ditu ikastegiaren eta ikasle hasi berrien artean, eta, ondoren, irakasleen eta ikasleen artean, haien ibilbide akademiko osoan. Irakaskuntzarako funtsezko euskarria da: zubi lanak egiten dituen ikasleen eta irakasleen artean; irtenbideak ematen dizkie une bakoitzean ager daitezkeen hezkuntza premiei; ikasleen ezgaitasunen ezaugarrien berri ematen die irakasleei; curriculumean egin beharreko egokitzapen posibleei buruzko aholkua ematen du; egoera bakoitzean behar diren baliabide pertsonalak nahiz laguntza teknikoak kudeatzen ditu. Helburu horretarako, Zerbitzuak txosten bat prestatzen du ikasturte bakoitza hasi aurretik, eta bertan jasotzen du zer premia dituen ikasle bakoitzak, irakas-kuntzari eta ebaluazioari begira, eta nola jardun behar den kasu bakoitzean. Txosten hori GAUR aplikazioko gela zerrenden bidez kontsulta daiteke; hartara, bermatuta geratzen da datu pertsonalak babesteko printzipioa. Informazio zehatzagoa nahi izanez gero zerbitzuak ikasleen premiei erantzuteko erabiltzen dituen ardatzei buruz eta ikastegiari nahiz irakasleei eskaintzen dizkien aholkularitzako jarraibideei buruz, irakurri gida honen D atala.

Bestalde, UPV/EHUko ikastegi bakoitzak hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen arduradun bat du –ikastegiak berak izendatua–. Hauek dira arduradun horren eginkizunetako batzuk:

- Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzuarekin koordinatzea, desgaitasunak eta, oro har, hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen beharrei erantzuteko.
- Ikastegiko prestakuntza beharrak identifikatzea eta antolatzen diren sentsibilizazio eta prestakuntza saioetan laguntzea.
- Irisgarritasun zein eskuragarritasuneko premiak antzematen laguntzea, eta behar horiei erantzutea ikastegiko administrazio zuzendaritzatik, Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzuarekin koordinatuta.

Bai ikastegiak –hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen arduradunaren bidez–, bai irakasleek –norberak eskatuta– Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzuaren bitartekaritza erabil dezakete une oro, ikasleen premiak interpretatzen eta egokitzen laguntzeko eta gaiaren gainean aholkua jasotzeko. Horretarako, beharrezkoa izango da irakasleek erantzukidetasunez jokatzeko.



eta, bereziki, jarrera proaktiboa eta malgua izatea irtenbide eta egokitzapen egokienak bilatu eta proposatzeko prozesu osoan eta ikasleen premia berri bakoitzaren aurrean.

# C

---

HEZKUNTZAREN ERANTZUNA  
IKASLEEN PREMIA DESBERDINEI

---





Desgaitasunen bat duten pertsonen ezaugarri bereizgarrienetako bat heterogeneotasuna da. Hala bada, desgaitasunak agerikoak edo ezkutukoak izan daitezke, sortzetikoak edo bat-batean agertuak, arinak edo larriak, aldi baterakoak edo iraunkorrak.

Kontuan hartu beharko dugu desgaitasunen bat duten ikasle guztiek ez dituztela izango hezkuntza premia bereziak. Aitzitik, zenbait ikaslek, desgaitasun aitorturik ez badute ere, hezkuntza premia bereziak izango dituzte, hala nola ikasteko zailtasun espezifiketatik, nahasteak edo gaixotasunetatik eratorritako premiak, eta horiei ere erantzun beharko zaie.

Era berean, premiak edo muga pertsonalak edo/eta inguruneko mugak espezifikoak izango dira kasu bakoitzean, eta horiek ere aintzat hartu beharko dira.

Gida honen xedea da irakasleak orientatzea, ikasleek izan ditzaketen egoera anitzei erantzun diezaieten, kontuan hartuta hainbat alderdi, hala nola interakziorako jarraibideak, irakaskuntzarako eta ebaluaziorako egokitzapenak zein estrategiak, curriculum eskuragarri izan dadin beharrezkoak diren giza bitartekoen nahiz bitarteko tekniko hornidura eta kasu zehatz bakoitzean proposa daitezkeen beste zenbait alderdi.

Jarraian, hezkuntzako premiei erantzuteko kontuan hartu beharreko zenbait jarraibide azalduko ditugu, hainbat desgaitasun mota dituzten UPV/EHUko ikasleek azken ikasturteetan proposatu dizkigutenak.

## **1. Entzumen desgaitasuna**

### **1.1. Ezaugarriak**

Entzumen desgaitasuna entzumenaren urritasun erabatekoa (gorreria) edo partziala (hipoakusia) da, eta informazioaren eskuragarritasunean eta komunikazioan du eragina, nagusiki.



Entzumen urritasuna duten pertsonak bi modu erabiltzen dituzte komunikatzeko:

- Ahozko komunikazioa, koklean inplante bat badute (entzumen funtzionala) edo estrategia bimodalak garatu badituzte, hala nola hitz osatua edo ezpain irakurketa, edo hitza audifono bidez antzematen badute, entzumen desgaitasun partzialen kasuan.
- Zeinu bidezko komunikazioa, nagusiki Zeinu Hizkuntza erabiliz, zeinak 2007an jaso zuen onespren ofiziala, 27/2007 Legean. Lege horren arabera, Estatua behartuta dago legezko bermeak eskaintzera, gorreria dutenek komunikatzeko aukera izan dezaten administrazioan, epaitegietan, osasun arloan edo hezkuntza arloan, besteak beste.

Unibertsitatean zailtasun hauetakoren bat agertu daiteke:

- Irakurtzeko eta idazteko zailtasunak: hiztegi teknikoaren ezezagutza; kontzeptu abstraktuak ulertzeko zailtasuna; akatsak idatzizko adierazpenean: esaldiak egituratzeko arazoak, lokailurik eza, arazoak aditzen aditz-jokoan...
- Portaeraren espezifikotasunak: malgutasun kognitiboaren nahastea, zorrotasuna, mesfidantza...

## 1.2. Interakziorako jarraibideak

### *Oro har*

- Aurrean izango dugun pertsonak zer komunikazio sistema erabiltzen duen jakitea.
- Beti aurrez aurre hitz egitea, motel eta behar bezala ahoskatuz, baina ozen hitz egin gabe.
- Igorlearen aurpegia ongi argiztatuta egon dadin saiatzeari, komunikazioa errazte aldera.
- Igorlea adi egotea, ahoa ez ezerekin estaltzeko (eskua, boligrafoa...).



- Esaldi labur, zuzen eta sinpleak erabiltzen saiatzea. Beharrezkoa izanez gero, keinuz laguntzea, ulermena eta komunikazioa hobetzeko.
- Ikasleari galdera bat egiten badiogu, guri begira dagoela ziurtatzea.
- Haren arreta erakarri behar badugu, bizkarra edo sorbalda ukitzea. Urrun badago, argia behin eta berriro itzali eta piztea.
- Zuzenean ikasleari hitz egitea, eta ez une horretan harekin doan pertsonari (zeinu hizkuntza interpretea, ikaskideak...).
- Kontuan hartu beharra dago ezpainen irakurketak anbigotasunak sortzen dituela eta gorrek gainera zailtasunak dituztela txantxak eta zentzu bikoitza duten irudizko lengoaia ulertzeko, halakoek arazoak sor ditzakete komunikazioan. Toleranteak izan behar dugu desgaitasunetik eratorritako portaeraren espezifikotasun posibleekin: mesfidantza, zorroztasuna...

### *Ikasgelan*

- Oro har, ingurune zaratatsuak eta akustika txarrekoak saihestea, neurri haundi batean komunikazioa, eta mezuaren ulermena oztopatzen dutelako.
- Entzumen urritasuna duen pertsona batek adierazitakoa ulertzen ez badugu, errepika dezala eskatu, eta ez egin ulertu duzun planta.
- Era berean, zer esan nahi diogun uler dezan eta beharrezkoa izanez gero, informazioa beste modu batean errepikatu.
- Baliteke ikasleak beharrezkoa izatea haren atzean eserita dauden ikas-kideek egindako galderak errepikatzea.
- Haren martxa errespetatzea: denbora nahikoa uztea, bai informazioa ulertzeko, bai adierazteko.
- Entzuten duten beste pertsona batzuekiko elkarrizketetan, hitz egiteko txandak errespetatzea.
- Ikasleak ahoz adierazteko dituen zailtasunei dagokienez, ez hura etetea eta ez amaitzea haren esaldiak, haren baimenik gabe.



- Irakaslea ez asko mugitzea ikasgelan barrena, ikasleak haren ezpainak irakurri ahal izateko eta azalpenak ulertu ahal izateko. Ahal den neurrian, ikaslearen parean kokatuko da, gehienez lau metrora.
- Gelan transmititzen den informazioa indartzen duten estimuluak tartekatzea (ahozkoa, bisuala). Ez idaztea arbelean ahozko azalpenak ematen diren bitartean. Ikasleak, aldi bereran ezin ditu ezpainak irakurri eta ahozko azalpena antzeman ere.
- Komeni da ikaslea aurrealdeko lerroetan esertzea, azalpenak ulertu ahal izateko.
- Espazioa U forman edo zirkuluan antolatzea, ikasle guztiek ikaskide guztien esku-hartzeak ikusi ahal izateko.
- Gelan konfiantza sustatzea, ikasleak ulertu ez dutena berriz azaltzeko eskatzera anima daitezen. Gainerako ikaskideei bezala, berari ere noiz-behinka galdetzea ea azalpenak jarraitzen dituen.
- Ahozko azalpenetan euskarri bisualak erabiltzea (power point aurkezpenak...).
- Ahal den guztietan, azpituludun filmak edo bideoak erabiltzea. Halakorik ez bada, Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzuari azpitulazio zerbitzua eskatzea.
- Ikasleari baliabide lagungarriak erabiltzen uztea (ordenagailu eramangarria, komunikagailuak...).
- Gelako azalpenetan irakasleak mikrofonoaren erabilera onartzea, ikasleak Frekuentzia Modulazioko (FM) tresna bat erabiltzen badu informazio bereganatzeko lagungarri gisa.
- Zeinu Hizkuntzako Interpretarekin kolaboratzea bere lana behar bezala bete dezan. Irakaslearen ondoan eta ikaslearen parean kokatuko da.

### 1.3. Ikaskuntzarako eta ebaluaziorako egokitzapenak eta estrategiak

#### *Metodologia*

- Ikasturtean zehar gelan erabiliko den material oro idatziz ematea (dokumentuak, irakurketak, bibliografia, eskemak, diapositibak...).



- Gelan erabiliko diren film eta bideoen gidoiak aldez aurretik ematea, baldin eta ez badute azpitulurik.
- Horretarako, komeni da “eGela” plataforman erabilgarri dauden tresnak erabiltzea.
- Ikasleak Zeinu Hizkuntza Interprete bat baldin badu, irakasleak klase aurretik helarazi beharko dio hiztegi tekniko ohikoena, baita gelan landuko den beste edozein material ere, landutako gaiari ahalik eta hobekien egokitzen zaion itzulpen bat egin dezan.
- Entzumen urritasuna duten ikasleei lagungarrien zaizkien ikaskuntza egoerak erraztea, hala nola talde txikitan lan egitea.
- Zailtasun egoeretan (irakasgaia, praktika, ebaluazioa...) irakasgaiaren helburuak erdiesteko, edukiak barnertzeko eta ebaluatzeko beste bide posible batzuk sustatzea.

### *Gelako lanak*

- Ikasleari behar besteko aurrerapenez jakinaraztea egin beharreko lan moten kronograma eta horiek amaitzeko datak, behar adina denbora izan dezan antolatzeko eta aukera berdinetan parte hartu ahal izateko.
- Bakarkako lanetan: ikasleak lana egiteko beharrezkoak diren dokumentuak eta gainerako baliabideak eskura dituela bermatzea. Zenbait kasutan, denbora gehiago utzi beharko zaio lana egiteko. Era berean, denbora gehiago ematea ahozko aurkezpenak edo defentsak egiteko.
- Taldeko lanetan: oro har, entzumen desgaitasuna duten ikasleek gainetarakoek bezalaxe parte hartu ahal izango dute, bai lanak egiten, bai lanak aurkezten, beharrezko dituzten euskarriak erabiliz (baliabide teknikoak edo Zeinu Hizkuntzako Interpretea).
- Landa lanetan: komunikaziorako egokitzapenen bat behar izatea litekeena da, hirugarren pertsonak ere tartean izan baitaitezke.



## Tutoretzak

- Campus Birtuala, posta elektronikoa, foroak eta antzeko teknologiak bereziki egokiak dira entzumen urritasuna duten ikasleekin komunikazio areagotzeko.

## *Ebaluatzeko irizpideak eta prozedurak*

- Gainerako ikasleei aplikatzen zaizkien ebaluazio teknika berberak aplikatzea, baina beharrezko egokitzapenak eginda, proben argibideak ondo ulertu dituztela bermatzeko.
- Ikasleari idatziz ematea ahoz eman ohi den informazio guztia: proba balaratzeko irizpideak, proba egiteko denbora eta proba egitean sor daitezkeen beste argibide edo ohar batzuk.
- Ikaslearen zalantzak argitzeko, edukia beste modu batean azaltzea, argi eta garbi ahoskatuz, eta ulertu duela ziurtatzea.
- Garatu beharreko galderak dituzten azterketetan eta, oro har, lanetan, akats morfosintaktikoak egin ditzakete idazterakoan. Edukiari erreparatuko zaio, eta ez hainbeste formari.
- Idatzizko zein ahozko azterketetan laguntza teknikoak (FM igorgailuak, ordenagailua...) erabiltzeko baimena ematea. Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzua arduratzen da azterketetarako ordenagailua kudeatzeaz eta uzteaz.
- Ikasleak hala eskatuz gero, Zeinu Hizkuntza Interpreteta azterketan egon dadin baimentzea. Azterketa ahozkoa bada ezinbestekoa izango da Zeinu Hizkuntza Interpreteta egotea.
- Beharrezkoa izanez gero (ikasleak zailtasunak baditu idatzizko adierazpenean edo/eta irakurmenean), denbora tarte luzeagoa ematea proba egiteko.



#### 1.4. Laguntzarako baliabide pertsonalak eta teknikoak

- Zeinu Hizkuntza Interpretatea. Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzuak kudeatutako UPV/EHUko langileak.
- Ikasle boluntarioak, apunteak hartzen laguntzeko.
- Audifonoak: gailu elektronikoa indibidualak, hizketaren soinuak eta ingurukoak antzeman, prozesatu eta anplifikatzen dituztenak, erabiltzaileen entzumen galerara egokituta.
- Kokleako inplantea: seinale akustikoak entzumen nerbioa estimulatu duten seinale elektriko bilakatzen dituen belarriko protesia.
- Frekuentzia Modulazioko (FM) tresnak: igorgailu eramangarri batek (igorleak darama) eta audifonoari edo kokleako inplanteari konektatutako har-gailu batek osatutako sistema. Ahozko mezuen ulergarritasuna hobetzen du, igorlearen urruntasunak, erreberberazioak eta inguruko zaratak eragin ditzaketen zailtasunak arinduz.
- Begizta magnetikoa: soinua uhin magnetiko bilakatzen duen gailua; uhin horiek belarriko protesiak antzematen ditu (audifonoa edo kokleako inplantea). Mikrofono batek igorlearen ahotsa hartzen du, eta modu modulatu transmititzen du kable magnetikoaren bidez. Espazio batean (ikaskela, hitzaldi aretoa, etab.) eremu magnetikoa sortzen duen begizta aurrez instalatu behar da.
- Oharren sistema: informazio panelak (une horretan modu akustikoan igortzen ari den informazioa idatziz ikusteko aukera ematen duten gailuak) eta argi seinaleak (oro har soinua bidez jakinarazten diren gorabeheren berri emateko argi egiten duten gailuak).
- Ikus-entzunezko materialari azpigituluak jartzeko zerbitzua, Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzuak kudeatua.
- Autokopiatzeko paperezko koadernoak, apunteak hartzeko.
- Azterketak egiteko ordenagailua.
- “eGela” plataforma.



## 2. Ikusmen desgaitasuna

### 2.1. Ezaugarriak

Ikusmen desgaitasuna ikusmenaren erabateko urritasuna edo erabateko galera izan daiteke (itsutasuna), edo galera partziala, pertsonak ikusmenaren porzentaje bati eusten badio (ikusmen urritasuna).

Sailkapen hori oso-oso bakuna da, gure geletara irits daitezkeen ikasleen aniztasuna kontuan hartuta. Betiko legez, “desgaitasun” etiketak diagnostiko heterogeneotasun handia barne hartzen du (erabateko itsutasuna, partziala, anbliopia sakona, anbliopia zentzu hertsian, erretinosi pigmentarioa...), eta sintomen heterogeneotasun handia ere bai, noski, zeinak aldatu egingo diren pertsona bakoitzaren askotariko baldintzen arabera (urritasunaren diagnostikoa, kausak eta hedadura; urritasuna noiz hasi zen; jasotako estimulazioa eta entrenamendua...).

Aurreko guztia kontuan hartuta, honako hauek dira ikusmen desgaitasuna duten ikasleek izan ditzaketen ezaugarrietako batzuk, kontuan hartu beharrekoak:

- Itsuek entzumenaren, ukimenaren eta norbere kontzientziaren bidez eskuratzen dute informazioa; horregatik, integrazio multisentsoriala funtsezkoa da. Horrek esan nahi du ahozko informazio deskriptibo-narratibo gehiago behar dutela inguruan jazotzen diren gertaeren gainean, aurkezpen grafikoaren gainean eta irakaskuntzan erabiltzen diren irudi zein testuen gainean.
- Ez badago integrazio multisentsoriala, haien informazioa hurbilekoenera muga daiteke, hurbil dauden objektu eta egoeretara, eta errealitatea motel eta zatikatuta esploratuko dute.
- Ikasle bakoitzak behar dituen laguntzak eta egokitzapenak urritasun motak edo/eta haren funtzionaltasun bisualak zehaztuko ditu. Oro har, curricula eskuragarri izateko egokitzapenak, egokitzapen metodologikoak eta ebaluazioarenak beharko dituzte.





- Era berean, irisgarritasunari lotutako premiak ere izan ditzakete (batik bat ikasle hasi berriek), batetik bestera mugitzeko eta orientazio espazialerako.
- Inprimatutako materiala erabiltzeko mugak izan ditzakete, edo modu sekuentziatuan eta motel erabil dezakete material hori.
- Itsuek irakurri eta idazteko braille sistema edo audioliburuak erabiltzen dituzte. Kontuan hartu behar dugu braille bidez irakurtzeko ohiko irakurketako prozesu linguistikoa gauzatzeko baino denbora gehiago behar dela.
- Kontzeptuak ulertu, barneratu eta garatzeko zailtasunak izan ditzakete, batez ere kontzeptu abstraktuak edo/eta eragin bisual handikoak badira.

## 2.2. Interakziorako jarraibideak

### *Oro har*

- Ikasleak zein ikusmen muga eta egokitzapen premiak zein diren ezagutzea.
- Unibertsitateko jarduerak gauzatzeko ikastegian erabiliko dituen eremuak ongi ezagutzen dituela ziurtatzea.
- Inguruko espazioa deskribatzea, non dagoen jakin dezan.
- Ikusmen hondarren bat duten ikasleentzat ikasgelak ongi argiztatuta egon daitezen zaintzea, eta ez jartzea ikasle horiek argiaren parean.
- Ikasgeletan espazio zabalak antolatzea, adibidez korridore behar bezain zabalak mahai lerroen artean. Gaizki kokatutako aulkiak, mahaiak eta bestelako oztopoak saihestea.
- Ateak eta leihoak erabat itxita edo irekita egotea, eta ez erdi irekita.
- Irakasgai gehienak ikasgela berean ematea, irisgarritasuna errazteko eta ikasleak altzarien antolamendua ongi ezagutzeko.
- Ikasleari garaiz ematea ikasgelako altzarien antolamenduan egindako aldaketa ororen berri. Gelako espazioak non dauden adieraztea, bere kokalekua erreferentziatzen hartuta.
- Toki zaratatsuetan (egokitu gabeko ikasgelak, korridoreak, kafetegia...) erraz gal dezakete entzumen bidezko informazioa.



- Ikasleari berari hitz egitea, eta ez une horretan harekin doan pertsonari (orientazioko espezialista, boluntarioa, ikaskidea...).
- Oihu orokor edo zehaztugabeak, “ai!”, “kontuz!” eta antzekoak ez erabiltzea ikusmen urritasuna duen ikaslearengan antsietatea edo segurtasunik eza eragin dezakete eta horien ordean “geldi!” eta antzeko beste batzuk erabiltzea.
- Ikasleari hitz egitean, bere izenez deitzea, berarekin ari garela konturatu dadin. Nor garen adierazi beharko diogu, norekin ari den jakin dezan. Bagoazenean edo haren ondotik urruntzen garenean, abisatu egin behar diogu.
- Laguntza eskaini aurretik, behar ote duen galdetzea. Laguntza behar badu, besoa luzatuko diogu, edo gure sorbalda non dagoen adieraziko diogu, berak hel diezagun. Ez diogu inoiz helduko abisatu gabe, arrisku-tsua izan baitaiteke.
- Eragozpenik ez jartzea itsu txakurra gelan egoteari, Laguntza Txakurrei buruzko ekainaren 29ko 10/2007 Legeak babestutako eskubide bat baita. Txakurrari ez arreta galaraztea, erabiltzailea desegonkortu baitezake.

### *Ikasgelan*

- Oro har, ingurune zaratatsuak eta akustika txarrekoak saihestea, komunikazioa eta mezuaren ulermena oztopatzen bai dute.
- Erritmoa errespetatzea: denbora nahikoa uztea, proposatutako informazioa eta egoera ongi ulertzen dituela ziurtatzeko.
- Gelan elkarrizketa bat baldin bada, beti errespetatzea hitz egiteko txandak. Galdera txandetan, eztabaidetan eta antzekoetan, kontuan behar dugu ikasleak ez dutela ikusten beste ikaskide batzuek besoa jasota duten ala ez; hortaz, batzuetan irudituko zaigu ikasleak ez duela errespetatzen hitz egiteko hurrenkera, bat-batean parte hartuko baitu ekarpenen bat edo galderaren bat egiteko.
- Komenigarria da ikusmen urritasunen bat duten ikasleak aurreko lerroetan esertzea, hobeto ikusi edo/eta entzun dezaten.



- Ikasleak behar adina espazio izan behar du, erabil ditzakeen baliabideak antolatzeko (braille liburuak, teklatura, grabagailua...), baita itsu txakurra-  
rentzat ere, halakorik baldin badu.
- Gelan konfiantza sustatzea, ikasleak ulertu ez dutena berriz azaltzeko eskatzera anima daitezen. Gainerako ikaskideei bezala, berari ere noiz-  
behinka galdetzea ea azalpenak jarraitzen dituen.

### 2.3. Ikaskuntzarako eta ebaluaziorako egokitzapenak eta estrategiak

#### *Metodologia*

- Apunteak hartzea: ikasle itsuek gailuren batekin har ditzakete apunteak (Braille'n Speak, ordenagailu eramangarria, tableta...), eta zailtasun handirik gabe jarrai dezakete gelako martxa; aitzitik, ikusmen hondarra duten ikasleek ezingo dituzte apunteak hartu, edo, har baditzakete, apunte partzialak izango dira, ideia esanguratsuenak bakarrik jaso ahal izango baitituzte.
- Gelan erabiliko den edozein material (apunteak, dokumentuak, irakurketak, bibliografia, diapositibak, eskemak, diagramak, irudiak, filmak eta bideoak) aurretik eta formatu elektronikoa eskaintzea. Betiere, erabil dezaketen formatu batean, erabiltzen dituzten irakurketa programen bidez dokumentazioa jaso ahal izateko. Beste aukera bat izan daiteke dokumentazioa non aurki dezaketen adieraztea, behar beste denbora izan dezaten formatu elektronikoa erabilgarrira, soinu formatura edo braille formatura bihurtzeko. Horrelako egokitzapenak UPV/EHUko Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzuaren bitartez kudeatzen dira, ONCE erakundearen laguntzaz. Ikasturtea hasi aurretik, Zerbitzuak erabiliko dituzten bibliografia eta materiala eskatzen dizkie ikasle itsuek izango dituzten irakasleei, eta erreferentzia bibliografikoak edo/eta materialak ONCE erakundera bidaltzen ditu, beharrezko egokitzapenak egin ditzaten eta ikasleek eskura izan ditzaten ikasturtea edo lauhilekoa hasi aurretik.
- Inprimatutako material baten fotokopiak banatuz gero, kalitate onekoak izan behar dute, bai ikusmen urria duten ikasleek errazago irakur ditzan-



ten, bai ikasle itsuek aukera izan dezaten irakurgailu optiko baten bidez eskaneatzeko eta ondoren ahots sintesiaren bidez aztertzeko.

- Azalpenek argiak eta oso zehatzak izan behar dute. Ahozko deskribapen zehatzak eta argiak egin behar ditugu, bai gelan gertatzen den ororenak, bai erabiltzen dugun material guztiarena, batez ere haren edukia nagusi bisuala bada: zer idazten den arbelean, zer ageri den euskarri bisual mota desberdinetan (aurkezpenak, bideoak...).
- Gelan testu bat irakurtzean, poliki eta argitasunez irakurri, irakurtzen ari zaren bitartean laburpen edo iruzkinik egin gabe.
- “Hemen”, “hor”, “hura” eta beste erreferentzia espazial batzuek ez dute esanahirik itsuentzat; horien ordeztu ahozko erreferentzia zehatzagoak erabiliko ditugu, ikaslearen kokapena erreferentziatuta hartuta, adibidez: “zure eskuinean”, “zure aurrean”, “zure gainean”, etab.

### *Gelako lanak*

- Ikasleari behar besteko aurrerapenaz jakinaraztea egin beharreko lan moten kronograma eta horiek amaitzeko datak, behar adina denbora izan dezan antolatzeko eta aukera berdinetan parte hartu ahal izateko.
- Bakarkako lanetan: ikasleak lana egiteko beharrezkoak diren dokumentuak eta gainerako baliabideak eskura dituela bermatzea. Zenbait kasutan, denbora gehiago utzi beharko zaio lana egiteko. Kontuan hartzea braille bidezko irakurketa ohikoa baino motelagoa dela.
- Taldeko lanetan: oro har, ikaskideek bezalaxe parte hartu ahal izango dute, bai lanak egiten, bai lanak aurkezten, beharrezkoak zaizkien euskarriak erabiliz. Oso lagungarria da gelako aurkezpenetan atrilak erabiltzea, batez ere material lagungarria erabiltzen bada.
- Landa lanetan: zer espaziotan lan egingo den kontuan hartuta, adibidez urruti badago edo ez badu ezagutzen, baliteke ikasleak ingurune ezezaguna ahoz deskribatuko dion gidari baten laguntza behar izatea (boluntario bat, ikaskide bat...), edo itsu-txakurrarena. Aintzat har daiteke emaitzak aurkezteko epe luzeagoa uzteko aukera.



## Tutoretzak

- Campus Birtuala, posta elektronikoa, foroak eta antzeko teknologiak bereziki egokiak dira ikusmen urritasuna duten ikasleekin komunikazio pertsonalizatua izateko; izan ere, badira bitarteko mota horiek erabilgarri bihurtzen dituzten programa informatikoak.

## Ebaluatzeko irizpideak eta prozedurak

- Beharrezko egokitzapen guztiak erabiltzea, desgaitasunak dituzten ikasle guztiek probak zuzen egiteko argibideak ulertu dituztela bermatzeko.
- Behar adinako aurrerapenaz egokitzea idatzizko azterketak braille sistemara, edo ikusmen desgaitasuna duten ikasleek erabiltzeko moduko dokumentuak direla ziurtatzea, horien aurkezpenean hainbat egokitzapen eginda: letra tipoa, tamaina, tartea, kontrastea, marra sinplez eta lodiz egindako marrazkiak eta eskemak, karaktere handiagoak, ikasleak ordenagailu egokitu batean instalatutako irakurgailu baten bidez (Jaws, NVDA...) irakurtzeko (neurri hori Zerbitzuaren bidez izapidetzen da, ONCE erakundearen laguntzaz).
- Azterketetan laguntza teknikoak erabiltzen uztea (Braille'n Speak, ordenagailua, Jaws, lupak, kalkulagailu egokituak...). Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzua arduratuko da baliabide horiek hornitzeaz.
- Azterketa material tiflotekniko espezifikoko ekipamendua duen aparteko gela batean egin dezan baimentzea, batik bat material hori erabiltzeak eragozpenak sor badiezazkie ikaskideei.
- Ikasleak ahozko azterketak egin ditzan ahalbidetzea.
- Eduki bisual handiko ebaluazioen kasuan, irudien, grafikoen, diagramen eta abarren erliebedun egokitzapenak egin daitezke. Hori ezinezkoa bada (edo ez bada nahikoa), eduki ez-bisualeko beste galdera batzuk jarri beharko dira horien ordeztu, trebetasun eta gaitasun bertsuak ebaluatuko dituztenak, betiere. Hiru dimentsioko objektuak erabiltzea ere komenigarria izan daiteke.



- Ikusmena mugatua izateak eta material espezifikoak erabili behar izateak ikaslearen martxa moteltzen dutenez, denbora tarte luzeagoa utzi beharko zaio probak egiteko.

## 2.4. Laguntzarako baliabide pertsonalak eta teknikoak

- Orientatzeko eta mugitzeko laguntzak: ONCE erakundeko orientazioko espezialistak (ikasle bakoitza dagokion ikastegian hasten den unean), itsu txakurra, bastoia, erliebe desberdineko zoruak...
- Ikasle boluntarioak, apunteak hartzen laguntzeko
- Testuen egokitzapena, ONCE erakundearen eskutik eta Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzuak kudeatuta.
- Material tifloteknikoa: pantailan karaktereak handitzeko programak (ONCE-Mega, Zoom-Text, Magic) eta pantaila irakurgailuak (Jaws, ahots gailuak, braille lerroak); inprimatutako testuak irakurtzeko tresnak (Lupa-TV, eskanerra eta OCR edo karaktere ezagutze optikoko programak –Tifloscan, Open Book–, irakurgailu optiko autonomoak –Galileo–); informazioa biltzeko eta prozesatzeko ekipamendu autonomoak (Braille'n Speak, Sonobril, PC Mate); braille idazmakinak eta inprimagailuak.
- Autokopiatzeko paperezko koadernoak, apunteak hartzeko.
- Kalkulua: kalkulagailu zientifiko, finantzario eta estatistiko egokituak, ahotsduna (Audiocalc); kalkulu programa (Multical)...
- Marrazketa positiboko txantiloak, erliebedun irudiak eta hiru dimentsioko ereduak (Thermoform, Horno Fusert), testuradun egokitzapenak...
- Lupak.
- Kataloxa/Monokulua: betaurrekoei lotuta, handiago ikustea ahalbidetzen dute, bai urrutira (arbela), bai hurbilera (ordenagailuaren pantaila).
- Atrila, ikasmahai-atrila.
- Ikastoki egokituak hiru campusetako liburutegietan.
- “eGela” plataforma.



### 3. Desgaitasun motorikoa

#### 3.1. Ezaugarriak

Motore desgaitasuna duten pertsonak lokomozio aparatuan alterazioak dituzte eta hauek, behin betikoak edo/ta behin behinekoak izango dira, nerbio sistema, muskulu sistema edo/eta hezur-artikulazioen sistema ez dabilelako behar bezala, eta horrek zenbait jarduera gauzatzeko hainbat mailatako mugak ekarriko dizkie.

Hona hemen motore urritasuna duten ikasleek izan ditzaketen zenbait ezaugarri orokor:

- Oso heterogeneoak dituzte hainbat alderdiri erreparatuta, hala nola desgaitasunaren jatorria, kaltetutako gorputz atalak, etiologia, alterazioaren maila eta izaera. Jatorriari dagokionez, jatorria garunean (garun paralisia, garezur-entzefaloko traumatismoak, esklerosi anizkoitza, tumoreak...), bizkarrezurrean (arantza bifidoa, muineko lesioak eta traumatismoak...), muskuluetan (miopatiak...) edo hezur-artikulazioetan (artrogripsia, erreumatismoa, bizkarrezurraren desbideratzeak...) duten desgaitasunak bereiz daitezke. Kaltetutako gorputz atalei erreparatuz gero, monoplegia, hemiplegia, paraplegia, diplegia, tetraplegia eta paresia bereiz daitezke, besteak beste. Etiologiari dagokionez, genetikoak eta mikrobianoak izan daitezke, besteak beste; alterazio mailaren arabera, arinak, ertainak edo larriak, eta jatorriaren arabera, berriz, sortzetikoak, eratorriak, kronikoak, degeneratiboak eta abar.
- Era berean, pertsona horiek desgaitasunari lotutako beste arazo batzuk ere izan ditzakete, modu primarioan edo sekundarioan eta neurri batean edo bestean eragina izan dezaketenak hainbat garapen eremutan: komunikazioan eta hizkuntzan (arnasteko eta ahoskatzeko zailtasunak, gorabehera praxikoak, sinzinesiak, disartria...), zentzumenetan (entzuteko, ikusteko eta antzemateko arazoak) eta, batzuetan, baita eremu intelektualean, emozionalean eta sozialean ere. Hauek ere izan daitezke des-



gaitasunarekin lotutako gorabeherak: epilepsia, digestio arazoak, arnas arazoak, mina eta kontrakturak, inkontinentzia...

- Hori guztia dela eta, batzuetan ohikoa izaten da aldiari behin mediku azterketak egin behar izatea, fisioterapia saioetara joan behar izatea, ospitaleratu behar izatea, etab., eta horrek eragina izan dezake ikasleen asistentzian eta emaitza akademikoetan.
- Talde heterogeneo honen muga nagusiak mota hauetakoak dira: mugikortasun mugak, irisgarritasuna oztopatzen duten oztopo arkitektonikoek eraginak, nagusiki; postura kontrolatzeko eta manipulatzeko mugak, hainbat egokitzapen eta laguntza teknikori esker arintzen direnak, eta komunikazio mugak, komunikazio sistema alternatiboak erabili beharra ekarriko dutenak.
- Mugikortasun, manipulazio eta komunikazio arazoek ez dute zertan oztopatu irakaskuntza-ikaskuntza prozesua, baina desgaitasun egoerak zaildu egin dezake irakasgaia egunean eramatea eta ezarrita dauden ezagutzak eta helburuak erdiestea. Hori dela eta, ikasle horien hezkuntza premia bereziki erantzun ahal izateko, curriculumaren egokitzapena aurreikusi behar da, bai hezkuntzako esku-hartzeari dagokionez, bai ebaluazioari dagokionez.
- Ez dugu segurutzat jo behar motore urritasunen bat duten ikasleek izan ditzaketan ezaugarri fisiko jakin batzuk (moteltasuna, hitz egiteko zailtasuna, lerre jariatzea...) garapen kognitiboaren atzerapenekin lotuta daudela. Ez dugu aurrez epaitu behar.
- Oro har, talde honek baliabide eta laguntza tekniko gehiago beharko ditu, horiek funtsezkoak izango baitira gainerako ikasleen aukera berdina izan ditzaten unibertsitateko ikasketak egiteko.

### 3.2. Interakziorako jarraibideak

#### *Oro har*

- Ikasleak zer muga fisiko eta egokitzapeneko zer premia zehatz dituen ezagutzea.





- Ikastegian edo campusean erabiliko ditugun ikasgelak eta bestelako espazioak (liburutegia, kopia denda, informatika gelak, kafetegia, etab.) irisgarriak izan daitezen saiatzea: beheko solairuan edo igogailua duen toki batean egotea, behar besteko zabalera duten ate arinak izatea, komun egokituak hurbil izatea...
- Ikasgelen antolakuntza: ikasgeletan espazio zabalak prestatzea, adibidez, korridore behar bezain zabalak uztea mahai lerroen artean; ate zabalak ipintzea; arbela, informazio taulak, esekilekuak, etengailuak eta materialentzako armairuak altuera egokian kokatzea; oholtzarako eta arbelerako irisgarritasuna bermatzea, etab.
- Kontuan hartzea motore urritasun egoera bat duten ikasleek batzuetan laguntza beharko dutela (fotokopiak egiteko, kafetegian zerbait hartzeko, goialdeko apal batetik liburu bat hartzeko...). Laguntzeko prest gaudela adieraztea.
- Zuzenean ikasleari hitz egitea, eta ez une horretan harekin dagoen pertsonari.
- Ikasleak hitz egiteko zailtasunak baditu, haren erritmoa errespetatzea eta esan nahi duena adierazteko behar adina denbora uztea. Zerbait ulertzen ez badiogu, edukazioz errepika dezala eskatzea; inoiz ez egitea ulertu diogulako plantak, desengainatuta sentituko baita.
- Zenbaitek, ahoz adierazteko modurik izango ez dutenez, komunikazio sistema alternatiboren bat erabiliko dute, eta denbora gehiago beharko dute zerbait adierazteko. Pazientzia izan behar dugu, eta ulertzen ahalegindu behar dugu.
- Gurrpil aulkian doan pertsona batekin hitz egiteko, haren altueran kokatu beharko dugu, haren aurrean eserita, ahal izanez gero. Ez badugu horretarako aukerarik, pixka bat aldendu beharko dugu, ez dezan lepoa gehiegi behartu hizketaldian guri begira dagoenean.
- Ez dugu behar baino gehiago mugitu edo ukitu behar haren gurrpil aulkia; izan ere, gure artean ez badago konfiantza handia, bere espazio pertsonalean sartzen ari garela senti dezake.
- Ez dugu pertsona aurrez epaitu behar bere ezaugarri fisikoengatik (moltetasuna, hitz egiteko zailtasuna, lerre jaritzea...).



- Desgaitasun egoera bat duten pertsonak beste inork baino hobeto dakite zer egin dezaketen eta zer ez. Ez dugu haien ordeztu behar jarduerara batean izango duten parte-hartzearen gainean.

## *Ikasgelan*

- Eskola ematean, irakasleak beti egon behar du ikaslearen ikuseremuan, batzuetan zailtasunak izan baititzake lepoa biratzeko eta igorleari begiratzeko.
- Gelan elkarrizketa bat baldin bada, beti errespetatzea hitz egiteko txandak. Galdera txandetan, eztabaidetan eta antzekoetan, ikaslearen martxa errespetatzea, bai haren ahozko adierazpena motela eta nekeza bada, baita komunikazio sistema alternatibo bat erabiltzen badu ere (arbela, komunikagailua...). Haren mezua errazago ulertzearen, ikasleri aurrez aurre begiratzea eta haren keinuei erreparatzea.
- Ez inoiz etetea haren hizketaldia esaldiak amaitzeko (asmo onez egiten badugu ere, komunikazioa arintzearen), baldin eta berak ez badu horretarako berariazko baimena eman edo bi solaskideen artean ez bada aldeztu aurretik adostu.
- Hobe da gurrpil aulkia, ibilgailua, makuluak... erabiltzen dituzten ikasleak atetik hurbilen dagoen korridore ondoko eserlekuetan kokatzea, autonomia handiago izan dezaten batera eta bestera mugitzeko (ikasgela barruan, sartu eta irteteko, etab.).
- Era berean, ikasle horiek behar adina espazio izan behar dute altzari egokituak erabili ahal izateko (mahai altuagoak, ikasmahai-atrila, beso-euskarridun edo buru-euskarridun aulkia, etab.) eta beharrezko egokitzapen guztiak erabiltzeko (ordenagailua, komunikagailua...).
- Ikaslea eskolara berandu iristen bada (garraio egokitu gutxi dagoelako, motel mugitzen delako, oztopo arkitektonikoak dituelako...) edo eskolan zehar irteten bada (inkontinentzia duelako, komunera joan behar duelako, sendagaia hartu behar duelako...), haren beharrak ulertzea eta malgutasunez jokatzea.



- Gelan konfiantza sustatzea, ikasleak ulertu ez dutena berriz azaltzeko eskatzera anima daitezen. Gainerako ikaskideei bezala, berari ere noiz-behinka galdetzea ea azalpenak ulertu dituen.

### 3.3. Ikaskuntzarako eta ebaluaziorako egokitzapenak eta estrategiak

#### *Metodologia*

- Dezenteko aurrerapenaz eta formatu elektronikoen eskaintzea gelan erabiliko den material oro (apunteak, dokumentuak, irakurketak, bibliografia, eskemak, diapositibak, filmak eta bideoak), edo horiek non lor ditzakeen adieraztea.
- Manipulazio muga larriak dituzten ikasle batzuen kasuan, ia ezinezkoa izango da apunteak hartzea. Ikaskideren batek eman diezazkioke, autokopiatzeko paperezko koadernoak erabiliz.
- Irakats materiala eta gelan erabilitako objektuak gurgil aulkian doan ikaslearen altueran eta eskura kokatzea.

#### *Gelako lanak*

- Ikasleari behar besteko aurrerapenaz jakinaraztea egin beharreko lan moten kronograma eta horiek amaitzeko datak, behar adina denbora izan dezan antolatzeko eta aukera berdinetan parte hartu ahal izateko.
- Bakarkako lanetan: ikasleak lana egiteko beharrezkoak diren dokumentuak eta gainerako baliabideak eskura dituela bermatzea. Askotan, denbora gehiago utzi beharko zaio lanak aurkezteko, praktikak egiteko, etab.
- Taldeko lanetan: oro har, mugitzeko desgaitasunen bat duten ikasleek gainerakoek bezalaxe parte hartu ahal izango dute, bai lanak egiten, bai lanak aurkezten, beharrezko dituzten euskarriak erabiliz. Ikasle batek komunikazio sistema alternatiboren bat erabiltzen badu, komenigarria izango da taldekideek sistema horrek nola funtzionatzen duen ezagutzea, taldeko komunikazioaren kalitatea hobetzeko. Zailtasun handiagoak izan ditzakete talde handitan hitz egiteko, beraz, talde txikitik lan egitea gomendatzen da.



- Landako lanetan: lana egingo den tokian ez badira betetzen beharrezkoak diren irisgarritasun baldintzak (garraiorik eza, zoru irregularra, eskaile-rak...), Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzuak lagunduko du beharrezko baliabideen egokitzean eta kudeaketan (garraio egokitua, laguntzaileak, ibilbide alternatiboak, etab.). Kontuan hartuta zer oztopo eta zailtasun gainditu behar dituzten, aintzat hartu behar da emaitzak aurkezteko epea luzatzeko aukera.

### *Tutoretzak*

- Campus Birtuala, posta elektronikoa, foroak eta antzeko teknologiak bereziki egokiak dira mugitzeko desgaitasuna duten ikasleekin komunikazio pertsonalizatua izateko; izan ere, badira bitarteko mota horiek erabilgarri bihurtzen dituzten programa informatikoak.
- Motore urritasuna duen ikasle batek askotan huts egiten badu eskolara, ospitaleratzeak edo tratamenduak direla tarteko, tutoretza eskolak errekuperatzeko eta irakasgaiari aurre egin ahal izateko baliabide egokia izan daiteke.

### *Ebaluatzeko irizpideak eta prozedurak*

- Gainerako ikasleei aplikatzen zaizkien ebaluazio teknika berberak aplikatzea, baina beharrezko egokitzapenak eginda, proben argibideak ondo ulertu dituztela bermatzeko.
- Espazio irisgarriak erabiltzea eta ikasleei laguntza teknikoak erabiltzen uztea (material eta altzari egokituak). Beharrezkoa izanez gero, Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzua arduratzen da azterketak egiteko behar duten software espezifikodun ordenagailua kudeatzeaz eta uzteaz.
- Aparteko gela bat erraztea, batik bat azterketa material espezifikoko ekipamenduarekin egiten bada ikaskideei eragozpenak ekiditeko.
- Manipulatzeko edo/eta komunikatzeko mugak izateak eta material lagungarri espezifikoak erabili behar izateak ikaslearen martxa moteltzen dutenez, denbora tarte luzeagoa utzi beharko zaio probak egiteko, izan idatzizkoak edo ahozkoak.



- Proba objektiboak (test motakoak) edo erantzun laburreko galderak erabiltzea aukera egokia izan daiteke.
- Ikasleren batek erraztasuna badu ahoz komunikatzeko eta eskuz zein teklatuarekin idazteko mugak baditu, ahozko azterketa egitea baloratu daiteke.
- Zenbait kasutan, ikasleak ezin badu idatzi laguntza teknikoak erabilita ere, beste pertsona baten laguntza jaso beharko du, berak diktatutakoa idatziz jasotzeko. Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzua arduratzen da laguntzaile horien kudeaketaz.

### 3.4. Laguntzarako baliabide pertsonalak eta teknikoak

- Hezkuntza laguntzarako espezialista: Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzuak kudeatutako UPV/EHUko langileak, motore urritasun eta mendekotasuna duten ikasleei laguntza orokorra ematea.
- Ikasle boluntarioak, apunteak hartzen laguntzeko.
- Irisgarritasunerako egokitzapenak: garraio egokitua, aparkalekuaren erreserba, ate zabal eta arinak edo automatikoki irekitzeko zeduladunak, arrapalak, igogailuak, zoru ez-labaingarria, barandak eta eskubandak, komun egokitua, altuera irisgarrian ipinitako seinaleak (komun zabala, barra lagungarriarekin, aginte bakarreko txorrotarekin, ispilu baxuarekin, konketa azpian hutsunearekin, etab.).
- Mugitzeko laguntza teknikoak: gurpil aulkiak, ibilgailuak, makuluak...
- Postura kontrolatzeko egokitzapenak: arbelak, esekilekuak, baldak, etengailuak... altuera baxuan kokatuta; arbel azpian eskubandak; altzari egokituak (atrilak; buru-euskarriak eta alboetako mugak, burua kontrolatzeko; altuera egokian ipinitako mahaia...), eta posturari eusteko hainbat ortesi (bipedestadoreak, ferulak...).
- Manipulaziorako egokitzapenak eta komunikaziorako laguntza teknikoak: arkatz lodigailuak, seinalatze eta tekletzeko erakusleak (eskukoa, oinekkoa, burukoa, erakusle optikoa), ordenagailua erabiltzeko egokitzapenak (teklatura babesteko karkasa, teklatu eta sagu egokituak, sakagailuak, kontzeptuen teklatua, teklatu emuladoreak, ukimen pantaila, etab.).



- Komunikaziorako laguntza teknikoak: komunikazioko sistema handigariak eta alternatiboak, komunikazioaren alternatiba gisa erabiltzen direnak ikasleen mintzamina ulergarria ez denean edo ez dagoenean inolako mintzamenik: komunikaziorako arbelak (eskuz seinalatzekoak, ekorketa bidezkoak, erakusle optiko edo bisuala darabiltenak), ahots irteera duten komunikagailuak (telefono mugikorra, tableta, ordenagailua).
- Beste baliabide batzuk: autokopiatzeko paperezko koadernoak, ikaskide batek apunteak emateko; “eGela” plataforma.
- Ikasteko toki egokituak hiru campusetako liburutegietan.
- Materiala gordetzeko armairua.
- Azterketak egiteko eta apunteak hartzeko ordenagailua.

## 4. Asperger Sindromea

### 4.1. Ezaugarriak

Asperger Sindromea espektro autistaren nahaste bat da, eta berekin dakar funtzionamendu psikologikoko eredu bereizgarri bat, non honako hauek antzematen diren, nagusiki: gaitasun sozioemozionalen mugak, hitzezko komunikazioaren nahiz hitzik gabeko komunikazioaren mugak eta malgutasun kognitiborik eza. Ezaugarri horiek zenbait portaeraren nahasmendua eragin dezakete, eta, ondorioz, pertsona horiek zailtasunak izan ditzakete testuinguru desberdinetan eraginkortasunez jokatzeko.

Asperger Sindromea duten pertsonen adimena normala da, edo ohi baino handiagoa, baina aipatutako zailtasunek eragina izan dezakete haien bizitza sozialean eta emaitza akademikoetan. Batzuetan gerta liteke inor ez ohartzea nahasteaz.

Gainerako desgaitasunen kasuan bezalaxe, Asperger Sindromea duten ikasleek artean ere heterogeneotasun handia dago, eta ikasle bakoitzak berezkoak zaizkion sintomak eta ezaugarriak izango ditu. Jarraian, ikasle hauek izan ditzaketen zailtasun eta bertute batzuk aipatuko ditugu. Kontuan hartu behar da kasu bakoitzean ez direla zertan denak batera agertu:



## Arlo sozialeko zailtasunak

- Erlazio eta interakzio sozialerako zailtasuna. Portaera gizarte egoeretara moldatzeko zurruntasuna.
- Taldean barneratzeko, lagunak egiteko eta harreman sozialetan sakontzeko zailtasunak.
- Gozamenak, interesak eta helburuak beste pertsona batzuekin modu naturalean partekatzeko zailtasuna.
- Gainerakoen mundu mentala ulertzeko eta bere portaera erregulatzen lagunduko dioten gako sozialak ulertzeko zailtasunak. Hirugarrenen emozioak eta sentimenduak antzemateko arazoak. Ez dakite enpatiaz jokatzeko.
- Sentimenduak adierazteko zailtasuna.
- Elkarrekotasun sozioemozionalaren gabezia. Haien jarreragatik, batzuetan ematen du ez dutela interesik edo lotsagabeak direla, euren interesatzen zaienaz bakarrik hitz egiten baitute, kontuan hartu gabe, itxuraz, gainerakoen gogo aldartea edo interesak.
- Beste pertsona batzuen portaerak eta erreakzioak aurreikusten ez dakite; ondorioz, maiz sentitzen dira nahasita.
- Orokorrean iniziatiba sozial eskasa badute ere, jardueretan parte hartzen dute eta taldetan integratzen dira, gainerakoek proposatzen badiete.
- Sarri, bizitza sozialerako funtsezko arauak ezezagun zaizkiela ematen du: nola agurtu, eskerrak ematea, nola hitz egin gainerakoei, testuinguru bakoitzean zer esan edo galdetu behar den, nola jokatu, etab.
- Egoera berriei aurre egiteko zailtasunak eta inguruko aldaketetara moldatzeko estrategiarik eza.
- Unibertsitateko ingurunea eta irakaskuntzen antolamendua bera bereziki problematikoa izan daiteke Asperger Sindromea duten ikasleentzat, aldatuz doazen jarduera akademikoak izango baitituzte (lauhilekoko antolakuntza, irakasgaien hautaketa, irakasle anitz, ordutegi aldakorak, eskolak hainbat ikasgela eta espaziotan, era askotako jarduerak, ikaskide talde aldakorak, etab.) eta era askotako erabakiak hartu beharko baitituzte, modu autonomoan, euren denbora eta jarduerak antolatzeko. Ildo



horretan, UPV/EHUko Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzuak eginkizun gailena betetzen du, ikasle hasi berriei egoera berrira moldatzen laguntzen, lehen kontaktuan aholku ematen eta haiek unibertsitatearen dinamikan txerta daitezen bideratzen. Lan hori betetzeko, beharrezkoa izango da jarraipen planifikatua eta etengabea egitea, bat etorriko dena ikasleak maila, irakasgaiak, jarduerak, praktikak... aldatzen dituen bakoitzean sortuz joango diren eskakizun eta behar espezifikoekin.

- Taldean lan egiteko zailtasunak izan ditzakete.
- Temati edo burugogor agertu daitezke, kosta egiten baitzaie euren ikuspegien bestelakoak ulertu eta onartzea.
- Gelan nahiz gelatik kanpo badirudi euren kontuak bakarrik interesatzen zaizkiela, euren munduan daudela.
- Ez dirudi ikaskideekin bat datozenik gustu eta modetan: jantziak, moda, musika, etab.
- Euren zailtasunez ohartu ohi dira, eta argi antzematen dituzte euren desberdintasunak; horrek antsietate eta depresio krisiak eragin diezazkieke askotan.

### *Komunikazioaren arloko zailtasunak*

- Interakzio eta komunikazio sozialerako gaitasun oso mugatuak. Komunikazioaren berezko mekanismoen ezezagutza.
- Hitzik gabeko komunikazioaren nahastea, zeinak zailtzen duen interakzio soziala. Hizkuntzari laguntzeko keinu gutxi eta atipikoak erabiltzen dituzte (begiz begiko harremana, aurpegi adierazpena, posturak, etab.).
- Batzuetan, interesa agertzen badute, bat-batean hurbiltzen dira, eta jarraera hori ezohikoa edo desegokia izan daiteke. Era berean, batzuetan gerta daiteke adigabe daudela edo interesik ez dutela badirudi ere adi egotea, nahiz eta haien keinuek alderantzizkoa adierazi.
- Gaizki ulertuak gerta daitezke, zailtasunak dituztelako hitzez hitzezkoa ez den hizkuntza eta haren intentzionalitatea ulertzeko: adiera bikoitzeko esaldiak, metaforak, modismoak, txantxak, etab. Era berean, baliteke ez





ulertzea jendeak emozioak adierazteko erabiltzen dituen keinuak, edo horiek gaizki ulertzea.

- Umore sen eskasa edo bitxia dute.
- Behin eta berriz esan ditzakete esaldi edo ohar jakin batzuk, eta behin eta berriz egin zenbait galdera, erantzuna jakinda ere.
- Euren interesei buruz hitz egin nahi izaten dute beti.
- Batzuetan, modu monotonoan eta intonaziorik gabe hitz egiten dute.
- Hizkuntza formalegia erabiltzen dute, pedantea ere izan daitekeena, eta horrek harreman sozialak zaildu ditzake.
- Erosoago sentitzen dira ikaskideekin sare sozialen bidez erlazionatzen direnean aurrez aurre erlazionatu beharrean.

### *Malgutasun kognitiboari lotutako zailtasunak*

- Estilo kognitibo eta jokamolde zurrinak dituzte, eta hori islatu egiten da jokabide, interes eta jarduera mugatu, errepikakor eta estereotipatuetan.
- Modu negatiboan erreakzionatzen dute aldaketekiko, eta larritasun handia eragin diezaiekete.
- Errutinak eta ingurune egituratuak eroso sentiarazten dituzte.
- Nahiago dituzte jarduera arautuak.
- Gogoko dituzte ohitura eta erritu espezifiko ez-funtzionalak.
- Jarrera perfekzionistak dituzte, eta, ondorioz, motelak izaten dira lanak gauzatzen.

### *Desgaitasunari lotutako beste arazo batzuk*

- Baldartasun motorra jarduera fisikoetan (korrika egin, salto egin...) eta grafomotrizitate arazoak.
- Egoera jakin batzuetan agertzen diren eta kontrolaezinak diren erritu motor estereotipatu eta errepikakorrak.
- Hipersentiberatasun sensoriala.
- Arreta eginkizun batean jartzeko zailtasuna: erraz galtzen dute arreta.



- Hainbat iturritatik eratorritako datuak bateratzeko eta arrazoibide abstraktuak ulertzeko zailtasuna.
- Denbora, lanak eta etorkizuna egitasmo errealistetan oinarrituta planifikatzeko eta antolatzeko arazoak.
- Arazoak erabakiak hartzean.
- Inpulsibotasuna.
- Nahasmendu obsesibo konpulsiboa.
- Antsietatea eta depresioa.

### *Bertuteak*

- Oso pertsona zintzoak eta egiazaleak izan ohi dira, eta une oro zer pentsatzen duten esan dezakete. Ez dakite ez gezurra esaten, ez ziniko izaten. Sineskorak eta gardenak dira; ez dute ez maleziarik, ez ezkutuko asmorik.
- Pertsona leialak eta serioak dira. Zehatz-mehatz bete nahi izaten dituzte arauak, eta justizia sen handia dute.
- Ordenari eta errutinei eustea atsegin dute, eta horiei zehaztasunez lo-tzea.
- Memoria bikaina izaten dute. Informazio ugari biltzeko gaitasuna dute, batik bat interesatzen zaizkien gaiei eta pertsonen buruzkoa bada.
- Luzaroan egon daitezke jarduera batean kontzentratuta edo interesatzen zaizkien gaiei buruz hizketan.
- Askotan, aparteko trebetasunak garatzen dituzte arlo espezifikoetan, hala nola kalkuluan edo musikan.
- Benetan interesatzen zaie gauzen funtzionamendua ulertzea (izan haizagailu batena edo unibertsoaren jatorriarena), eta logika hiper-arrazionala aplikatzen dute arrazoibide guztietan.
- Euren lanak lotura badu euren interesekin eta hura gauzatzeko ez badira beharrezkoak gaitasun sozial handiak, arrakasta profesionala bermatuta egoten da. Eraginkorrak izaten dira lan teknikoetan: informatika, matematika, argazkilaritza, administrazioa, etab.



- Ezagutza eta trebetasun handiak dituzte zientzia eta teknologiaren arloan.
- Helburuak argi eta garbi zehaztuta badaude, gogor saiatzen dira helburuak lortzen.
- Ikasteko eta proposatzen zaiena egiteko motibazio handia izaten dute.
- Perfekzionistak izan ohi dira edozein lanetan.
- Trebeak izan daitezke pertseberantzia, iraupena eta zehaztasuna behar dituzten jardueretan, hala nola xakean edo erregistro zein katalogazio lanetan.
- Hiztegi zabala dute.
- Arlo sozialean moldatzea ahalbidetzen dieten estrategia alternatiboak sortzeko gai dira, zailtasunen gainetik.

#### 4.2. Interakziorako jarraibideak

##### *Oro har*

- Ikasleak zer zailtasun eta zer premia dituen jakitea bere egokitzapenerako. Tutoretza aukera ona da ikaslearekin aurrez aurre hitz egiteko.
- Asperger Sindromea duten ikasleen izaera eta jokaera ezagutzea eta ulertzea garrantzitsua da, kontuan hartzea beste modu batera antzematen eta interpretatzen dutela inguruan duten mundua.
- Pazientzia izan behar dugu; komunikatzen utzi behar diegu, eta haiek ulertzen ahalegindu behar dugu.
- Ikaslearen autonomia pertsonala eta unibertsitate bizitzako parte-hartzea sustatu behar ditugu, hainbat testuingurutan integratzen lagunduz, egoera berri bakoitzeko funtzionamendu arau inplizituak ulertaraziz eta sor daitezkeen egoera gatazkatsuetan bitartekaritza lanak eginez, beharrezkoa izanez gero.
- Uneren batean bakarrik edo taldetik aldenduta egon nahi badu, errespetatzea.



## *Ikasgelan*

- Ikaslea seguru sentiaraziko duen giro egonkorra eta aurreikusteko modukoa bermatzea, eta ezusteko aldaketak saihestea beharrezkoa izango da.
- Ikaskideengan Asperger Sindromea duen ikaslearenganako jarrera positibo errespetuzkoa, malgua eta ulerkorra sustatzeko eta taldeko integrazioa errazteko, sentsibilizazio tailer edo jardunaldi bat antolatzea beharrezkoa litzateke, sindromearen ezaugarriak eta jardunbide egokiak ezagutzera emateko, ikaslea ados badago, betiere.
- Ikasgelan beti toki berean esertzeko joera dute, segurtasuna ematen baitie.
- Gelan konfiantza sustatzea, ikasleak ulertu ez dutena berriz azaltzeko eskatzera anima daitezen. Asperger Sindromea dutenek zailtasun handiak dituzte laguntza eskatzeko. Zalantzaren bat badute, litekeena da ez galdetzea. Gainerako ikaskideei bezala, berari ere noizbehinka galde-tzea ea azalpenak ulertu dituen, eta noizean behin aukera ematea tutoretza saio bat egiteko.
- Komunikatzeko saioak errespetatzea, behar duen denbora utziz galderak egiteko, galderei erantzuteko edo erabakiak hartzeko.

### 4.3. Ikaskuntzarako eta ebaluaziorako egokitzapenak eta estrategiak

#### *Metodologia*

- Gelan erabiliko den material oro (testuak, artikulua, irakurketak, bibliografia, eskemak, diapositibak, filmak eta bideoak), beti ere al bada alde zuzenetik eta formatu elektronikoa erraztea edo/ta non lor ditzakeen adieraztea.
- Ikasgelan aurreikusteko moduko giroa sortzea. Eskola bakoitzaren hasieran bertan zer egingo den aipatzea (jarduerak, horien iraupena, bakar-kakoak ala taldekoak izango diren, etab.). Aipatutako egitura errespetatzea eta ustekabeko aldaketak ekiditea.



- Zenbait kasutan, zailtasunak izan ditzakete apunteak hartzeko. Hala izanez gero, irakasleak eman diezazkioke, edo ikaskide baten laguntza jaso dezake horiek lortzeko (autokopiatzeko papera). Batzuetan, ordenagailua erabiltzeko premia izan dezakete.
- Arreta etengabe mantentzeko zailtasunak izan ditzakete, horrek tentsioa eragin eta ahalegin handia eskatzen baitie. Ondorioz, informazio zatikatu jaso dezakete, ikuspegi orokorrik gabea eta koherentziarik gabea.
- Haien interes espezifikoak aintzat hartzea baliabide akademiko gisa.
- Komeni da euskarri bisualak erabiltzea (irudiak, grafikoak, diagramak, taulak, kontzeptu mapak...), modu bisualean aurkezten zaien informazioa gainerakoa baino askoz hobeto prozesatu, ulertu eta barneratzen baitute. Komenigarria izango da ikasleari alde aurretik ematea gelan gaiaren osagarri gisa erabiliko diren aurkezpenen eta era guztietako material grafikoak kopiak.
- Zenbait funtzio exekutibo betetzeko izan ditzaketen zailtasunek errendimendua oztopa dezakete lan luze eta konplexuetan. Lanak urrats txikitan eta sekuentzian banatuz gero, arindu egin daitezke muga horiek.
- Ongi moldatzen dira on-line ikastaroetan, ikaskuntza pertsonalizatua sustatzen baitute, materiala eskuragarri eta antolatuta baitago, kontzeptuak behin eta berriz eta norberak nahi duen martxan berrius baitaitezke eta kontsulta pertsonalizatuak egin baitaitezke.

### *Gelako lanak*

- Ikasleari behar besteko aurrerapenaz jakinaraztea egin beharreko lan moten kronograma eta horiek amaitzeko datak, behar adina denbora izan dezan antolatzeko.
- Bakarkako lanetan: oro har, taldean baino hobeto moldatzen dira bakarka. Hala ere, zenbait neurri hartu beharko dira: ikasleak lana egiteko behar dituen dokumentuak eta gainerako baliabideak eskura dituela bermatzea; egin behar duenari buruzko jarraibide zehatzak ematea; lana nola aurkeztu behar duen argi eta garbi azaltzea, etab. Baliteke gainerakoek baino denbora gehiago behar izatea lanak aurkezteko, praktikak egiteko, etab.



- Taldeko lanetan: zenbait ikaslek ikaskideek bezalaxe parte hartu ahal izango dute taldeko lanetan, bai lanak egiterakoan, bai lanak aurkezterakoan, eta emaitza onak izan ditzakete ikaskuntza kooperatiboko egoeretan, euren trebetasun bikainenak eskainiz taldeari (irakurketa, hiztegia, memoria, informazioa biltzeko ahalmena, etab.). Beste batzuentzat, aldiz, taldean lan egitea oso zaila izango da: ez dira gai izango ikaskideekin koordinatzeko; ahalegin handia egin beharko dute zer egin behar duten eta taldea noiz eta non bilduko den jakiteko; ezingo diote taldearen martxari eutsi... Taldeko jardueretan parte har dezaten sustatu beharko dugu. Oro har, zenbat eta txikiagoa izan taldea, orduan eta hobeto moldatuko dira.

### *Tutoretzak*

- Asperger Sindromea duten ikasleen kasuan, komenigarria izan daiteke irakasle tutore bakar bat egokitzea, erreferentziatzeko pertsona izango dena etapa akademiko osoan.
- Tutoretza gehiago egitea, jarraipen, arreta eta laguntza indibidualizatua eskaini ahal izateko (zalantzak argitzeko, zereginak xehetasunez antolatzeke, etab.).
- Campus Birtuala, posta elektronikoa, foroak eta antzeko teknologiak bereziki egokiak dira Asperger Sindromea duten ikasleekiko komunikazioa errazteko.

### *Ebaluatzeke irizpideak eta prozedurak*

- Gainerako ikasleei aplikatzen zaizkien ebaluazio teknika berberak aplikatzea. Zalantzarik izanez gero, komenigarria izan daiteke alde aurretik tutoretzen bidez aztertzea ea baden ikaslearentzat bereziki desegokia den ebaluazio metodoren bat.
- Ikasturtearen hasieratik ematea egingo diren ebaluazio proba motei buruzko argibide zehatzak eta irizpide horiei eustea.
- Estres egoeretan blokeatuta gelditu daitezkeela kontuan hartuta, komenigarria izango da ikasleari jakinaraztea denbora gehiago izango duela idatzizko zein ahozko probak egiteko.



- Zailtasunak izan ditzakete proba objektiboak egiteko (test motakoak), urritasunak baitituzte analizatzeko, laburtzeko eta aukeratzeko gaitasunean. Aukera egoki bat izan daiteke horrelakoen ordean erantzun laburreko galderak egitea. Ekidin egin behar dira adiera bikoitzeko galderak, Asperger Sindromea duten ikasleen hizkuntza hitzez hitzezkoa baita eta zailtasun handia baitute horrelakoak ulertzeko.
- Ikasleak manipulazio zailtasunen bat edo zailtasun grafomotorren bat badu, idatzizko azterketa ordenagailuz egiten uztea. Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzua arduratzen da azterketak egiteko ordenagailua kudeatzeaz eta uzteaz.

#### 4.4. Laguntzarako baliabide pertsonalak eta teknikoak

- Tutore espezifiko bat ikastegian.
- Ikasle boluntarioak, apunteak hartzen laguntzeko.
- Azterketak egiteko ordenagailua.
- Autokopiatzeko paperezko koadernoak, apunteak hartzeko.
- “eGela” plataforma.

## 5. Ikasteko zailtasunak

### 5.1. Ikasteko zailtasun espezifikoak: dislexia

#### 5.1.1. Ezaugarriak

Dislexia ikasteko zailtasun espezifiko bat da, jatorri neurobiologikoa duena. Irakurketa eta idazketaren ikaskuntzan agertzen da, eta irakurketa prozesuan, idazketan eta ortografian zailtasunak sortzen ditu, oro har, hizki, zenbaki eta bestelako ikur konbentzionalen deskodeketarekin zerikusia duten alderdi guztietan.

Nabarmendu beharra dago dislexiaren jatorria ez dela ematen arrazoi intelektual, kultural, emozional, ezta motibazio faltagatik ere. Dislexia ager daiteke



ahalmen kognitibo ona izan arren. Zailtasunak bizitza osorakoak izaten dira, baina, denborak aurrera egin ahala, dislexia arazoak dituztenek estrategiak erabiltzen eta ikasten dituzte zailtasunak minimizatzeko, eta bizitza akademiko edo profesionalarekin jarraitu al izateko.

Bi dislexia mota daude:

- Hartutako Dislexia: irakurmen maila jakin bat lortu ostean garuneko lesio baten ondorioz (gaixotasun zerebroaskularra, tumorea, istripua...) beharrezkoak diren gaitasunetako batzuk galtzen dituztenek.
- Dislexia ebolutiboa: jatorri neurobiologikoa du, eta haurtzarotik ageri da, ageriko arrazoirik gabe.

Hauek dira dislexiari lotuta agertu ohi diren ikasteko beste zailtasun espezifiko batzuk:

- Disgrafia: idazketaren kalitatean eragina duen nahaste funtzionala da grafiari edo marraketari dagokiona. Grafia egokia egiteko zailtasunak.
- Disortografia: hitzen elementuen edukian eragina duten idazketako akatsen multzoa. Zailtasunak ortografia arbitrarioan (v/b) zein naturalean (a/o) ager daitezke.
- Diskalkulia: trebetasun aritmetikoak eta zenbakien ezagutza behar bezala barneratzea eta erabiltzea zailtzen duen ikaskuntza nahastea.

Hauek dira dislexia duten ikasleek izan ditzaketen zailtasunetako batzuen ezau-garriak:

### *Irakurketa*

- Silabak eta fonemak identifikatzeko, zatikatzeko edo konbinatzeko zailtasuna.
- Zailtasunak fonema-grafema eta grafema-fonema bihurketa arauetan: grafema edo silaben omisioak, eransketak, ordezkatzak eta alderantzizak-tzak.





- Irakurketa motela eta nekeza. Errepikapenak eta zalantzak. Azentuazio akatsak. Puntuazio markak ez errespetatzea.
- Irakurritako testuaren esanahia eta ideia nagusiak ondorioztatzeko zailtasunak.
- Ortografikoki antzekoak diren hitzak nahastea (paralexia).
- Akats gehiago hitz ezezagunen irakurketan eta idazketan.

### *Idazketa*

- Ortografiako akatsak idazketan (v/b, g/j).
- Hitz irregularrak idaztean akatsak (pub, trolley, rally...).
- Hitzak eta esaldiak oker elkartzea eta zatikatzea idatzizko testuetan.
- Ideiak antolatzeko eta idatzizko testu baten egitura eraikitzeke zailtasunak.
- Disgrafia: grafomotrizitate arazoak.
- Grafemen (d/b) eta zenbait digituren (9/6, 5/2, E/3) ispilu idazketa.

### *Kalkulua*

- Matematikako hiztegia barneratzeko zailtasunak: kokalekua, tamaina eta erlazioak.
- Ikur matematikoak identifikatu eta deskodetzeko zailtasuna.
- Kontzeptu matematikoak nahastea:  $x/:$ , hamarreko/hamarren, ehuneko/ehunen, MCD/MCM, aurretik/ondoren, gehiago/gutxiago, erdia/bikoitza...
- Zifrak alderantzikatzea digitu bat baino gehiagoko zenbakietan (36/63).
- Zenbakiaren esanahia ulertzeko zailtasuna: zenbakizko kopuruak bizkor ulertu, hurbildu eta manipulatzeko gaitasuna.

### *Beste batzuk*

- Batzuetan, arreta mantentzeko gaitasun urria eta arreta-galtze arazoak (normalean nekearen ondoriozkoak).



- Epe laburrerako memoriaren funtzionamendu eskasa.
- Batzuetan lateralitate eta orientazio espazialeko arazoak ere izaten dituzte.
- Maiz izaten dute frustraziorako eta autoestimua galerarako joera.

### 5.1.2. Interakziorako jarraibideak

#### *Ikasgelan*

- Garrantzitsua da ahal dugun neurrian ikasleen hezkuntza premia bereziak ezagutu, ulertu eta balioestea.
- Ikasgelako aurrealdeko lerroetan esertzeko proposatu dezakezu.
- Gelan konfiantza sustatzea, ikasleak parte hartzera eta zalantzak galdeztera anima daitezela. Gainerako ikaskideei bezala, beraiei ere noizbehinka galdetzea ea azalpenak ulertu dituzten, eta noizean behin aukera ematea tutoretza saio bat egiteko.

### 5.1.3. Ikaskuntzarako eta ebaluaziorako egokitzapenak eta estrategiak

#### *Metodologia*

- Gelan erabiliko den material oro (apunteak, dokumentuak, irakurketak, bibliografia, eskemak, diapositibadun aurkezpenak, filmak eta bideoak) beti ere posible bada formatu elektronikoan aldeztu erraztea. Jasotako idatzizko materiala ulertu duela egiaztatzea.
- Batzuetan, komenigarria izango da jarduera gutxiago egitea, betiere gaitasunak, helburuak eta edukiak erdiesteari uko egin gabe eta kalitatea zein garrantzia lehenetsita. Beste aukera bat jarduerak egiteko denbora gehiago uztea izango da.
- Jendaurrean irakur dezala eskatzea ekiditea.
- Ahal den neurrian, komenigarria da azalpenetan eta idatzizko testuetan ikus-entzunezko euskarriak ere erabiltzea: irudiak, grafikoak, diagramak, taulak, kontzeptu mapak, bideoak...



- Gai edo jarduera bakoitzaren laburpenen eskemak egin ditzala eskatzea, edo horrelakoak ematea. Ikasleri eskatuz gero, egindakoa gainbegiratzea.
- Zailtasunak izan ditzakete apunteak hartzeko, baita arbelean idatzitakoa kopiatzeko ere; izan ere, kosta egiten zaie aldi berean entzun eta idaztea. Zailtasun horri aurre egiteko, irakasleak alde aurretik eman diezaioke materiala ikasleri, edo ikaskide edo boluntarioren baten laguntza jaso dezake (autokopiatzeko paperezko koadernoak). Era berean, ordenagailua erabiltzen utz dakioke.
- Ikasgelan kalkulagailuak, ordenagailuak eta zuzentzaile grafikoak ditzuten testu prozesadoreak erabil ditzaten onartzea eta sustatzea.

### *Gelako lanak*

- Ikasleri behar besteko aurrerapenaz jakinaraztea egin beharreko lanen kronograma eta horiek aurkezteko datak, behar adina denbora izan dezan antolatzeko. Informazioa buruan duela ziurtatzea eta pertsonalki ematea aldaketa edo berrikuntza ororen berri.
- Bakarkako lanetan: ez da zertan arazorik izan. Nolanahi ere, agian gainerakoek baino denbora gehiago behar dute lanak aurkezteko, praktikatetarako, etab. Kontuan hartu eta balioetsi egin behar da gainerako ikaskideek baino ahalegin handiagoa egin behar dutela irakurmenerako, idatzizko adierazpenerako, kalkulurako...
- Taldeko lanetan: horrelakoetan ere ez dute inolako arazorik izaten, ez taldeko lanak egiterakoan, ezta aurkezterakoan ere. Nolanahi ere, egokitzen zaien jarduera motaren edo lan zehatzaren arabera, errendimendu maila aldatu egingo da (edo zenbait lanetarako beste batzuetarako baino ahalegin handiagoa egin beharko dute, behintzat). Oro har, ondo moldatuko dira lan kooperatiboko egoeretan.

### *Tutoretzak*

- Tutoretza gehiago egitea, jarraipen, arreta eta laguntza indibidualizatua eskaini ahal izateko. Beharrezkoa izanez gero, haien indarguneak gorai patzea eta bakoitzaren trebetasunak nabarmentzea.



- Campus Birtuala, posta elektronikoa, foroak eta antzeko teknologiak bereziki egokiak dira tutorearen eta ikaslearen arteko komunikazioa errazteko.

### *Ebaluatzeko irizpideak eta prozedurak*

- Ikasturtearen hasieratik ematea egingo diren ebaluazio probei buruzko argibide zehatzak eta irizpide horiei eustea.
- Zalantzarik izanez gero, komenigarria izan daiteke aldez aurretik tutoretzen bidez aztertzea ea baden ikaslearentzat bereziki desegokia den ebaluazio metodoren bat, edo aztertzea metodo bakoitzak zer zailtasun zehatz ekarriko dizkion eta beharrezkoak diren egokitzapenak adostea.
- Idatzizko probak egiteko denbora gehiago uztea.
- Orokorrean, lasaitu egingo ditu enuntziatuak irakurtzeko eta erantzunak pentsatzeko denbora gehiago dutela jakiteak. Ziurtatu egin behar dugu ongi ulertzen dituztela galderak eta zer eskatzen zaien. Beharrezkoa bada, irakasleak azterketa irakur diezaioke ikasleri, proba hasi aurretik.
- Proba amaitzean, irakasleak azterketa gainbegiratzea, letra ulertuko duela ziurtatzeko edo ikasleak argitu beharreko zalantzarik ba ote den ikusteko.
- Baimena ematea idatzizko azterketak ordenagailuz egiteko. Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzua arduratzen da azterketak egiteko ordenagailua kudeatzeaz.
- Zuzentzaile ortografikoa, kalkulagailua eta beharrezkoak diren beste baliabide batzuk erabiltzen uztea.
- Idatzizko azterketak zuzentzean, lehentasuna ematea edukiari, idatzizko adierazpenaren eta akats ortografiko saihetsezinen ginetik.
- Beste aukera bat izan daiteke galdera laburreko edo test motako azterketak egitea.
- Ahozko azterketak egitea egokia den aztertzea.



#### 5.1.4. Laguntzarako baliabide pertsonalak eta teknikoak

- Ikasle boluntarioak, apunteak hartzen laguntzeko.
- Azterketak egiteko eta apunteak hartzeko ordenagailua.
- Testuak irakurtzeko programa informatikoak.
- Autokopiatzeko paperezko koadernoak.
- Kalkulagailua.
- “eGela” plataforma.

### 5.2. Arretagabeziaren nahastea eta hiperaktibitatea (AGNH)

#### 5.2.1. Ezaugarriak

Arretagabeziaren nahastea hiperaktibitatearekin, edo gabe, (aurrerantzean, AGNH) jatorri neurobiologikoko nahaste bat da, eta hiru sintoma primario izaten ditu: arretaren defizita, inpulsiotasuna eta hiperaktibitatea. Ezaugarri horietako bakoitzaren intentsitatea eta maiztasuna desberdinak izan daitezke kasu bakoitzean, eta sintoma horiek eragin negatiboa dute bai ikaskuntzan, bai portaeran.

Sintoma horiek guztiak batera ager daitezke, edo horietako bat bakarrik nagusi daiteke. Horien konbinazioetatik eratortzen dira AGNH-ren hiru azpimota oinarrizkoak:

- Ez-arretatsua: mota honetan arreta defizita nagusitzen da, eta ez dago hiperaktibiterik. Zailtasunak dituzte egin behar dituzten jardueretan modu jarraituan arreta jartzeko eta, hortaz, arreta zeregin akademikoetara bideratzeko.
- Inpulsiho-hiperaktiboa: mota honetan nagusi dira portaera inpulsihoak eta hiperaktibitatea. Portaera inpulsihoetan, emozioen, pentsamenduen eta jokaeren gaineko auto-kontrolik eza nabarmentzen da, eta presazko erantzunak eragiten dituzte. Hiperaktibitatea jarduera motorren maila erregulatzeko zailtasunean islatzen da, eta muturrekoa izan daiteke.



- Konbinatua: mota honetan aurreko bi azpimoten sintoma guztiak agertzen dira, hau da, arretarik eza, inpultsibotasuna eta hiperaktibitatea.

Era berean, kontuan hartu behar dugu AGNH-rekin batera beste nahaste batzuk ere ager daitezkeela (komorbilitatea):

- Ikasteko zailtasunak (irakurketa-idazketa eta kalkulu matematikoa).
- Motore trebetasunen alterazioa (baldartasun motorra, zailtasun grafomotorrak).
- Aldartearen nahasmenduak (depresioa eta antsietatea).
- Portaera nahasteak (nahaste negatibista-desafiatzailea, defentsarako jokabide oldarkor inpultsiboa...).
- Tik-ak eta nahaste obsesiboa, etab.

Ez da zehaztasunez ezagutzen zerk eragiten duen AGNH. Dirudienez, aldaketa genetikoei lotutako garapen arazo bat da, zeinetan parte hartzen duten hainbat genek. Anomalia genetikoa horrek zenbait neurotransmisoreren hipofuntzioa eragiten du, dopaminarena eta noradrenalinarena, besteak beste, zeinak funtsean lobulu aurre-frontaletan biltzen diren, horiek izanik arreta prozesuen eta funtzio exekutiboen nahiz plangintzako funtzioen erantzuleak.

Funtzio exekutiboen nahasmendu horrek era askotako portaera arazoak, arazo emozionalak eta arazo kognitiboak eragiten ditu:

- Arretari eusteko zailtasuna.
- Akatsak zeregin sinple eta monotonotan.
- Materiala galtzea eta datak, konpromisoak ahaztea.
- Planifikatzeko eta antolatzeko zailtasuna.
- Zeregin konplexuetan argibideei jarraitzeko zailtasuna.
- Gainbegiratu ezean zeregin bat amaitzeko zailtasuna.
- Estrategia inpultsiboak eta prekarioak arazoak konpontzeko, erantzuteko aukera desberdinak aztertu gabe.
- Informazioa gogoan atxikitzeko eta lan memoriarako zailtasunak.



- Inpultsibotasuna kontrolatzeko zailtasuna: pentsatu gabe erantzutea.
- Frustrazioarekiko tolerantzia txikia.
- Segurtasunik eza eta auto-estimua txikia.
- Orekarik eza egindako ahaleginaren eta lortutako emaitza akademikoen artean.

### 5.2.2. Interakziorako jarraibideak

#### *Oro har*

- Ikasleak egokitzapenak eta premiak dituen ezagutzea. Tutoretza oso egokia da ikaslearekin aurrez aurre hitz egiteko.
- Garrantzitsua da AGNH duten ikasleak nolakoak diren eta nola jokatzen duten jakitea eta ulertzea.
- Jarrera naturala, tolerantzia eta begirunetsua izatea, pertsona aurrez epaitu gabe ezaugarri edo adierazpen jakin batzuenatik.

#### *Ikasgelan*

- Ikasgelan giro ordenatua, egituratua eta aurreikusteko modukoa bermatu behar da.
- Ikasleak ez badu jarrera egokia gelan edo haren lanek ez badute eskaintzen lortu nahi den errendimendua, ekidin egin behar da ikaskideen aurrean kritikatzeko, auto-estimua ez kalterik egiteko. Ildo horretan, komeni da “izan” aditzaren ordez “egon” aditza erabiltzea (adibidez, “zabarra zara” esan beharrean, “zure lana ez dago txukun” esatea).
- Portaera desafiatailea izango balu, amatatze teknikak erabiltzea gomendatzen da. Ez moralizatzea, ez epaitzea, ez aurre egitea, ez eraso egitea, ez sartzea botere borroketan... Irmo eustea, eta egoera konpontzeko alternatibak eskaintzea. Laguntza erabiltzea. Gaia bakarka lantzea, tutoretzan.
- Ikaskideengan AGNH duen ikaslearenganako jarrera positibo malgua eta ulerkorra sustatzeko, beharrezkoa izan daiteke sentsibilizaziorako lantze-



gi edo jardunaldi bat antolatzea, ezagutzera emateko nahasmenduaren ezaugarriak eta nondik-norakoak, ikaslea ados badago, betiere.

- Ikasgelako aurrealdeko lerroetan eser dadin proposatzea ikasleari, irakaslearekiko harreman bisuala errazteko eta ateak, leihoak eta arreta galaraz diezaioketen beste elementu batzuk ekiditeko, ahal den neurrian.
- Zenbait kasutan, ezinbestean mugitzeko premia izan dezakete. Horretan permisiboak izan beharko dugu, ikaslearen jarrera ulertu, eta ez gaitzetsi. Gure esku dago saio dinamikoak prestatzea, hainbat motatako jarduerak izango dituztenak, ikasleek zereginenez aldatzeko aukera izan dezaten. Zenbat eta laburragoak, anitzagoak eta motibatzaileagoak izan eta zenbat eta koherentzia handiagoz sekuentziatuta egon, orduan eta egoikiagoak izango dira jarduerak. Saioan zehar edo jarduera desberdinen artean atseden funtzionalak sartzea.

### 5.2.3. Ikaskuntzarako eta ebaluaziorako egokitzapenak eta estrategiak

#### *Metodologia*

- Gelan erabiliko den material oro (apunteak, dokumentuak, irakurketak, bibliografia, eskemak, diapositibak, filmak eta bideoak) dezenteko aurrerapenez eta formatu elektronikoa eskaintzea, edo horiek non lor ditzakeen adieraztea.
- Funtzio exekutiboen nahasmenduek berekin dakartzaten arazoak aintzat hartzea.
- Ikasleari argibide pertsonalizatuak ematea, ulertu dituela ziurtatzeko.
- Zereginen antolakuntzarekin eta plangintzarekin lotutako alderdiak zaintzea, eta lanak, aurkezpenak, azterketak nahiz bestelakoak egin eta entregatzeko epeak eta datak azpimarratzea.
- Errendimendu txikia izan dezakete zeregin luze eta konplexuetan. Jarduerak urrats txikitari eta sekuentziatari zatitzeak ikasle horien mugak arindu ditzake, eta lagungarriak izan dakizkieke zereginak planifikatzeko, amaitzeko eta egiaztatzeko.





- Batzuetan komenigarria izango da jarduera gutxiago egitea, betiere gaitasunak, helburuak eta edukiak erdiesteari uko egin gabe eta kalitatea zein garrantzia lehenetsita.
- AGNH duten ikasleekin ezinbestekoa izango da aurkeztutako lanen feed-backa; hartara, ikaskuntza berrikusteko eta norberak egindako lana zuzentzeko gaitasunak garatu ahal izango dituzte.
- Komeni da azalpenetan euskarri bisual lagungarriak erabiltzea: irudiak, grafikoak, diagramak, taulak, kontzeptu mapak... Era berean, egokia da ikasleak materialak manipulatzeko, horiei esker errazago lortuko baitu problemak ebaztea eta kontzeptuen abstrakzioa egiteko zailtasunak gainditzea.
- Gai edo jarduera bakoitzaren laburpenen eskemak ematea (edo egin ditzala eskatzea).
- Baliteke ikasle horiek zailtasunak izatea apunteak hartzeko, arretari eutsi ezin diotelako edo irakurketan nahiz idazketan arazoak dituztelako. Hala bada, irakasleak aurretik eman diezazkioke apunteak ikasleari, edo ikas-kideren baten laguntza jaso dezake (autokopiatzeko paperezko koadernoak). Era berean, ordenagailua erabiltzeko baimena eman dakieke.

### *Gelako lanak*

- Ikasleari behar besteko aurrerapenaz jakinaraztea egin beharreko lanen kronograma eta horiek aurkezteko datak, behar adina denbora izan dezan antolatzeko. Informazioa buruan duela ziurtatzea eta pertsonalki ematea aldaketa edo berrikuntza ororen berri.
- Bakarkako lanetan: ez da zertan izan inolako arazorik. Nolanahi ere, batzuetan beharrezkoa izan daiteke zenbait neurri hartzea: ikasleari lana egiteko behar dituen dokumentuak eta gainerako baliabideak eskura ditzuela gogoraraztea; egin behar duenari buruzko jarraibide zehatzak ematea; lana nola aurkeztu behar duen argi eta garbi azaltzea, etab. Baliteke gainerakoek baino denbora gehiago behar izatea lanak aurkezteko, praktikak egiteko, etab.



- Taldeko lanetan: oro har, ikaskideek bezalaxe parte hatu ahal izango dute, bai lanak egiten, bai lanak aurkezten, eta emaitza onak izan ditzakete ikaskuntza kooperatiboko egoeretan, euren trebetasun bikainenak eskainiz taldeari (sormena, berrikuntza, eskuzabaltasuna, pertseberantzia, gogoberotasuna, etab.). Nolanahi ere, zailtasunak izan ditzakete: antolatzeko zailtasunak, bilerak noiz eta non egingo diren gogoratzeko eta horiek errespetatzeko zailtasunak, euren eginbeharrak planifikatzeko zailtasunak eta aurkezpen epeak kontrolatzeko zailtasunak, nagusiki.

### *Tutoretzak*

- AGNH duten ikasleen kasuan, komenigarria izan daiteke irakasle tutore bakar bat egokitzea, erreferentziazko pertsona izango dena etapa akademiko osoan.
- Tutoretza gehiago egitea, jarraipen, arreta eta laguntza indibidualizatua eskaini ahal izateko (zalantzak argitzeko, zereginak nahiz jarduerak xehetasunez antolatzeko eta planifikatzeko, irakasgaiaren antolamendu orokorra berrikusteko, etab.). Oso garrantzitsua da komunikazio arina izatea eta ziurtatzea gogoan ondo atxiki duela informazioa (zer zeregin eta jarduera egin behar dituen, lanak noiz aurkeztu behar dituen, zer motatako ebaluazioa egingo den eta noiz, etab.). Ikasturtean zehar izan daitekeen edozein aldaketaren berri ematea.
- Campus Birtuala, posta elektronikoa, foroak eta antzeko teknologiak bereziki egokiak dira AGNH duten ikasleekiko komunikazioa errazteko.

### *Ebaluatzeko irizpideak eta prozedurak*

- Ikasturtearen hasieratik ematea egingo diren ebaluazio probei buruzko argibide zehatzak, eta irizpide horiei eustea.
- Zalantzarik izanez gero, komenigarria izan daiteke aldez aurretik tutoretzen bidez aztertzea ea baden ikaslearentzat bereziki desegokia den ebaluazio metodoen bat, edo aztertzea metodo bakoitzak zer zailtasun zehatz ekarriko dizkion.



- Ebaluazio jarraia bereziki egokia da ikasle hauentzat. Euren ezaugarriak eta funtzio exekutiboetan dituzten zailtasunak kontuan hartuta, proba bakoitzaren feed-backa oso lagungarria gerta dakieke euren errendimendua hobetzeko.
- Zenbait pertsonak zailtasunak dituzte azterketa egiteko zenbat denbora beharko duten kalkulatzeko eta denbora hori antolatzeke; beste batzuk nekatuta egoten dira, eta horrek arreta galarazten die eta ez dituzte lortzen berez dagozkien emaitzak; beste batzuek sendagaiak hartzearen ondorioak jasaten dituzte, etab. Hori guztia dela eta, jarraian ageri den neurrietakoren bat har dezakegu, kasu zehatz bakoitzarentzat egokiena:
- Proba egiteko denbora luzatzea.
- Azterketa bitan zatitzea, bi egunetan egiteko.
- Azterketa egokitzea: galdera kopurua murriztea, proba bakarrean galdera mota desberdinak konbinatzea (garatzekoak, laburrak, test motakoak...).
- Azterketen maiztasuna areagotzea, baina bakoitzean galdera gutxiago egitea.
- Ahozko azterketak egitea.
- Ikasleak dislexia edo disgrafia arazoak baditu, idatzizko azterketa ordenagailuz egiten uztea. Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzua arduratzen da azterketak egiteko ordenagailua kudeatzeaz eta uzteaz.
- Ikasgelan ikasleei arreta galaraz diezaieketen estimuluak gutxitzea.
- Orokorrean, lasaitu egingo ditu enuntziatuak irakurtzeko eta erantzunak pentsatzeko denbora gehiago dutela jakiteak. Ziurtatu egin behar dugu ongi ulertzen dituztela galderak eta zer eskatzen zaien.
- Azterketa bukatutzat eman aurretik hura berrikusteko denbora tarte bat har dezaketela gogoraraztea.

#### 5.2.4. Laguntzarako baliabide pertsonalak eta teknikoak

- Tutore espezifiko bat ikastegian.
- Ikasle boluntarioak, apunteak hartzen laguntzeko.
- Azterketak egiteko eta apunteak hartzeko ordenagailua.



- Autokopiatzeko paperezko koadernoak, apunteak hartzeko.
- Agenda.
- “eGela” plataforma.

## 6. Nahaste psikikoak

### 6.1. Ezaugarriak

Nahaste psikikoa egokitzapenezko edo erlaziozko jardunean izan daitekeen muga nabarmen gisa defini daiteke. Haren jatorria aldi baterako nahasmendu bat edo nahasmendu iraunkor bat da, emozional kognitiboa edo/eta portae-razkoa, eta egoera horretan kaltetuta gera daitezke oinarrizko prozesu psikologikoak, hala nola emozioa, motibazioa, kognizioa, kontzientzia, jokamoldea, pertzepzioa, sentipena, ikaskuntza eta hizkuntza. Hori guztia oso eskuragarria edo ulergarria ez den testuinguru batean, gainera.

Era askotako nahaste multzoa da, eta horien kausak ere askotarikoak dira, eta hainbat faktoreren araberakoak. Nahaste horien artean, honako hauek nabarmen ditzakegu: gogo aldaratearen nahasmenduak, psikotikoak, antsietate nahasteak, nortasunarenak, loarenak, elikadura portaerarenak edo kognitiboak. Hori dela eta, ezinezkoa da nahaste psikiko bat duten pertsonen portaeraren eredu espezifiko bat zehaztea, portaera hori aldatu egingo baita, diagnostikoaren arabera eta tratamendua egokia izan ala ez.

Nahaste psikikoak dituzten pertsona gehienek nahasmenduak eragin diezazkiekeen mugak arintzea lortzen dute tratamendu egokiari esker (ez dute inolako sintomarik azaleratzen), eta, horri esker, funtzionamendu sozial egokia izango dute, eta gainerakoen gaitasun berberak erdietsiko dituzte ikasteko eta lan egiteko. Hala ere, pertsona horien ehuneko txiki batek premia espezifikoak izan ditzake, normalean une jakin batzuetan. Kasu horietan, mugek ikasleen eguneroko bizitza oztopa dezakete, pertsonen arteko harremanak eta ikasketak zailduz, besteak beste.



Kontuan hartu beharra dago buruko nahasmenduek ez dutela zertan izan ez iraunkorrak, ez konponezinak, eta ez dakartela berekin adimen urritasuna. Hala izango balitz, ikasle horiek ez ziren Unibertsitatera iritsiko.

Heterogeneotasuna aintzat hartu beharreko faktore garrantzitsua da, nahasmendu psikikodun pertsonen ari garela, eta kolektibo horren baitan aurkituko ditugu nahasmendu berbera izanda ere ezaugarri erabat desberdinak dituzten ikasleak; hortaz, funtsezkoa izango da ez estereotipoak ezartzea. Nahaste psikikoaren ondorio nagusiek honako hauekin dute zerikusia:

- Pertsonen arteko harremanetarako eta integrazio sozialerako zailtasunak (sentimenduak azalertzeko zailtasunak, isolatzea, saihezpenezko portaera, etab.).
- Egoera berri eta aldakorretara egokitzeko zailtasunak; antsietatea estresagarriak izan daitezkeen ohiko egoeretan (galera, azterketak...).
- Errendimendu akademikoaren beherakada, tratamendu farmakologikoen ondorioz (kontzentratzeko arazoak, interesik eta motibaziorik eza, eskolak uztea, etab.).
- Eskoletara huts egitea tratamenduen ondorioz, ospitaleratzeen ondorioz, etab.

Era berean, aintzat hartu behar dugu irakasleek ez dutela izango nahasmendu psikikoren bat duten ikasleen egoeraren edo baldintzen berri baldin eta haiek ez badiote euren kabuz jakinarazten UPV/EHUko Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzuari (eta badakigu ikasle askok ez dutela egiten). Ezezagutza horren ondorioz, gerta daiteke kasu eta une jakin batzuetan harrigarria iruditzen zaigun krisi edo egoera bati aurre egin behar izatea, bat-batean, eta ahal dugun moduan jokatu beharko dugu. Berehala eman behar zaio horrelako kasuen berri UPV/EHUko Psikologia Aplikatuako Zerbitzuari, haren aholkua eta laguntza jasotzeko.



## 6.2. Interakziorako jarraibideak

### *Oro har*

- Ikaslearentzat oso lagungarria izango da gure konplizitatea izatea, guk zer zailtasun eta egokitzapeneko zer premia zehatz dituen ezagutzea. Tutoretza oso egokia da ikaslearekin aurrez aurre hitz egiteko.
- Garrantzitsua da nahaste psikikoa duten ikasleak nolakoak diren eta nola jokatzen duten jakitea eta ulertzea. Pertsona biolento gisa duten estigma ez dator bat errealitatearekin. Estereotipoak baztertu behar dira, eta ikasle bakoitzaren ezaugarri indibidualetan oinarritu. Etiketak saihestu behar dira.
- Jarrera naturala, tolerantzia eta begirunetsua izatea, pertsona aurrez epaitu gabe ezaugarri edo adierazpen jakin batzuegatik. Ikasle horiek izan dezaketen zailtasun handiena euren desgaitasunak eragin ohi duen gaitzespena jasateko beldurra da; gaitzespen hori ezezagutzan oinarrituta egoten da, ia beti.
- Ikaslearekin hitz egitean, hari begietara begiratzea, begirada zintzoaz, eta kortesia hutsezko jarrerak baztertzea; hartara, gaitzetsia izateko beldurra desagertu egingo da, eta onartu eta entzuten dutela sentituko du. Jarrera enpatikoa izatea.
- Ikaslearen komunikazio eta portaera estiloa zein martxa errespetatzea. Zailtasunak izan ditzake inguruko informazioa prozesatzeko eta osatzeko, baita informazio horretara moldatzeko ere.
- Batzuetan, ez dira oso adierazkorrak, edo pertsona hotzak dirudite. Hori ez da gertatzen ulertzen ez dutelako, baizik eta motelak direlako erantzuten edo hizkuntza egituratzen.
- Itxuraz, bakarrik egoteko joera dute (seguru daudela sentitzeko), baina egiaz bizitza soziala egin nahi dute, eta lagunak eduki.
- Batzuetan, erantzun inpultsiboak eta pentsatu gabek izan ditzakete.



## *Ikasgelan*

- Lasaitasuna transmititzea, ikasle horiek seguru sentiaraziko dituen giro egonkorra eta aurreikusteko modukoa ezarriz eta egoera estresagarriak saihestuz.
- Ikasleak gizartetik isolatuta egoteko ageri duen joera errespetatzea ez denean hurbiltzen ez irakasleengana, ez ikaskideengana.
- Ikaskideengan nahaste psikikoa duten ikasleenganako jarrera positibo errespetuzkoa, malgua eta ulerkorra sustatzea, ikasle horiek neurritz kanpo babestu gabe.
- Gelan konfiantza sustatzea, ikasleak ulertu ez dutena berriz azaltzeko eskatzera anima daitezten. Zailtasun handiak dituzte laguntza eskatzeko. Baliteke zalantzaren bat izanda ere irakasleari ez galdetzea. Gainerako ikaskideei bezala, beraiei ere noizbehinka galdetzea ea azalpenak ulertu dituzten, eta noizean behin aukera ematea tutoretza saio bat egiteko.
- Komunikatzeko saioak errespetatzea, behar duen denbora emanaz galderak egiteko, galderei erantzuteko edo erabakiak hartzeko.
- Jendaurrean hitz egiten diegunean estres edo antsietate egoerak sortzen ditugula nabaritzuz gero, horrelako ekintzak saihestea.

### 6.3. Ikaskuntzarako eta ebaluaziorako egokitzapenak eta estrategiak

#### *Metodologia*

- Dezenteko aurrerapenaz eta formatu elektronikoa eskaintzea gelan erabiliko den material oro (apunteak, dokumentuak, irakurketak, bibliografia, eskemak, diapositibak, filmak eta bideoak), edo horiek non lor ditzakeen adieraztea.
- Gelako jardueretan, modu argi eta errazean azaltzea zer urrats egin behar diren.
- Irakasleari behar adina denbora uztea erantzuteko eta erabakitzeko. Aukeratzeko eta erabakiak hartzen laguntzea.



- Ikaslea taldean errazago integra dadin, interakzio sozialerako aukerak sustatzea, jarduera bideratu eta egituratuen bidez.
- Baliteke ikasle horien ikasketa martxa ez izatea gainerako ikaskideenaren berdina.
- Batzuetan motibaziorik gabe ager daitezke, borondaterik gabe eta ikasketetan nahiz ikasgelako jardueretan ezin kontzentratu; kasu batzuetan, eskolak aldi batez uztea ere gerta liteke.
- Haien indarguneak sustatzea (trebetasunak eta egindako lanak), segurtasuna eta emaitza onak areagotzeko. Lorpen akademikoak garrantzitsuak dira haientzat; izan ere, zenbait kasutan muga pertsonalak eta sozialak orekatzeko bidea izan daitezke.
- Frustrazioarekiko tolerantzia txikia dute, eta, zenbait zeregini dagokienez, saihepenezko eta ukapenezko portaerak izan ditzakete, porrotaren beldur direlako.
- Hartzen duten tratamendu farmakologikoak zertxobait murriztu dezake errendimendu akademikoa (ikastea, lanak, etab.), alderdi funtzionala edo/eta kognitiboa moteldu egin daitezkeelako.
- Zenbait kasutan, ikasleak zailtasunak izan ditzake apunteak hartzeko. Hala izanez gero, irakasleak eman diezazkioke, edo ikaskide baten laguntza jaso dezake horiek lortzeko (autokopiatzeko paperezko koadernoak). Beharrezkoa izanez gero, ordenagailua erabiltzeko baimena eman go zaie.
- Zenbait funtzio exekutibo betetzeko izan ditzakeen zailtasunek errendimendua oztopa dezakete lan luze eta konplexuetan. Lanak urrats txikitari eta sekuentzian banatuz gero, arindu egin daitezke muga horiek.

### *Gelako lanak*

- Ikasleari behar besteko aurrerapenaz jakinaraztea egin beharreko lan moten kronograma eta horiek amaitzeko datak, behar adina denbora izan dezan antolatzen.
- Bakarkako lanetan: oro har, ondo moldatzen dira bakarka, taldean lan egiten baino seguruago eta erosoago sentitzen dira. Hala ere, zenbait





neurri hartu beharko dira: ikasleak lana egiteko behar dituen dokumentuak eta gainerako baliabideak eskura dituela bermatzea; egin behar duenari buruzko jarraibide zehatzak ematea; lana nola aurkeztu behar duen argi eta garbi azaltzea, etab. Baliteke zenbait ikaslek gainerakoek baino denbora gehiago behar izatea lanak aurkezteko, praktikak egiteko, etab.

- Lanak ikaskideen aurrean ahoz aurkezteak antsietatea edo beldur eszenikoa eragin diezaieke. Hala izanez gero, aurkezpena irakasleari bakarrik egiteko aukera eman beharko zaie.
- Taldeko lanetan: ikasle gehienek ikaskideek bezalaxe parte hatu ahal izango dute, eta emaitza onak izango dituzte ikaskuntza kooperatiboko egoeretan. Ikasle gutxi batzuei, baina, segurtasun gabezia eta interakzio sozialerako gaitasun urria tarteko, oso zaila egingo zaie taldean lan egitea, batez ere taldea handia bada. Zenbat eta txikiagoa izan taldea, orduan eta hobeto moldatuko dira. Hala ere, ahal den guztietan, nahasmendu psikikoa duten ikasleentzat onuragarria izango da talde lanetan parte har dezaten sustatzea.

### *Tutoretzak*

- Nahaste psikikoa duten ikasleekin komenigarria izan daiteke irakasle tutore bakar bat egokitzea, erreferentziatzko pertsona izango dena etapa akademiko osoan.
- Tutoretzan adostu daiteke ikasgelan nola jokatu ahalik eta gehien murrizteko ikaslearen estres maila. Ahal den neurrian, errespetatu egingo ditugu bere iritzia eta proposamenak: ea egokia den ala ez jendaurrean hitz egin behar izatea, taldeko jarduerak gauzatu behar izatea, etab.
- Campus Birtuala, posta elektronikoa, foroak eta antzeko teknologiak bereziki egokiak dira nahasmendu psikikoa duten ikasleekiko komunikazioa errazteko. Tutoretzak on-line egiteko aukera eskaintzea.

### *Ebaluatzeko irizpideak eta prozedurak*

- Ikasturtearen hasieratik ematea egingo diren ebaluazio probei buruzko argibide zehatzak eta irizpide horiei eustea.



- Gainerako ikasleei aplikatzen zaizkien ebaluazio teknika berberak aplikatzea. Zalantzarik izanez gero, komenigarria izan daiteke aldez aurretik tutoretzen bidez aztertzea ea baden ikaslearentzat bereziki desegokia den ebaluazio metodoren bat.
- Hauek aukera egokiak dira: ebaluazio jarraia, ahozko azterketak, lan osagarriak eta abar.
- Estres egoeretan blokeatuta gelditu daitezkeela kontuan hartuta, komenigarria izango da ikasleei jakinaraztea denbora gehiago izango dutela idatzizko zein ahozko probak egiteko. Azterketa batean krisi bat izanez gero, ikasgelatik irteteko edo atseden hartzeko baimena ematea. Ikasle batzuek neurritz kanpoko antsietatea ager dezakete ahozko azterketetan; hortaz, komenigarria da horiei beste aukera batzuk eskaintzea.
- Ikasle batzuek azterketa ez egitea ere erabaki dezakete, horrek estres gehiegizkoa eta kontrolaezina eragiten dielako. Batzuetan, erosoago sentitzen dira azterketa bakarka egin badezakete, beste ikasgela batean edo irakaslearen bulegoan.
- Kontuan hartu beharra dago errendimenduak nabarmen egin dezakeela behera, gaixotasun batzuen sintomen ondorioz edo sendagaien albo ondorioen ondorioz.

#### 6.4. Laguntzarako baliabide pertsonalak eta teknikoak

- Ikasle boluntarioak, apunteak hartzen laguntzeko.
- Tutore zehatz bat ikastegian.
- Azterketak egiteko ordenagailua.
- Autokopiatzeko paperezko koadernoak.
- “eGela” plataforma.



## 7. Gaixotasun organikoak

### 7.1. Ezaugarriak

Aurretik aztertu ditugun taldeetan heterogeneotasun handia dagoela nabarmendu badugu, are handiagoa da talde honen barnean bil dezakegun kasuistika. Sintoma desberdinak dituzten gaixotasun ugari dago (sintoma horietako batzuk oso ezgaitzaileak dira), eta, ondorioz, beharrezkoa izango da ikasle bakoitzak arreta pertsonalizatua jasotzea, bere ezaugarrietara eta hezkuntza premia espezifikoetara egokitua.

Horrelako gaixotasunak dira iraupen luzekoak edo/eta tratamendu berezia behar dutenak, hala nola diabetesa, giltzurrun gutxiegitasuna, kardiopatia larriak, epilepsiak, hesteetako hanturazko gaixotasunak (kolitis ultzeraduna, Chronen gaixotasuna...), fibromialgia eta abar.

### 7.2. Interakziorako jarraibideak

#### *Ikasgelan*

- Ikasleak behar dituen egokitzapenak eta premiak ezagutzea.
- Jarrera naturala, tolerantzia eta begirunetsua izatea, pertsona aurrez epaitu gabe ezaugarri edo adierazpen jakin batzuetatik.

### 7.3. Ikaskuntzarako eta ebaluaziorako egokitzapenak eta estrategiak

#### *Metodologia*

- Kontuan hartzea ikasle horiek batzuetan zailtasunak izan ditzaketela arretari etengabe eusteko (mina, ondoeza, inkontinentzia, muga fisikoak, etab.) edo ezin dituztela praktika edo jarduera jakin batzuk gauzatu. Horrelako egoeretan, irakasgaiaren baitan aurretik ezarritako gaitasunak, helburuak eta edukiak erdiesteko beste bide batzuk aztertu beharko dira, baita ebaluaziorako beste bide batzuk ere.



- Sarri huts egin dezakete eskoletara (medikuarekin hitzorduak, tratamenduak, ospitaleratzeak, etab.).
- Baliteke lanak aurkezteko epeen luzapena behar izatea.

### *Tutoretzak*

- Tutoretza prestakuntza prozesuari laguntzeko hezkuntza estrategia gisa erabiltzea. Jarduera mota jakin bat egitea edo aldi batean eskoletara joatea eragozten dieten sintoma jakin batzuk dituzten ikasleekin harreman zuzena izanez gero, irakasleak ikaslearen zailtasun zehatzak ezagutuko ditu, eta bien artean bilatuko dute zailtasun horiek gainditzeko eta irakasgaia arrakasta bermez egiteko modua.
- Campus Birtuala, posta elektronikoa, foroak eta antzeko teknologiak bereziki egokiak dira irakaslearen eta ikaslearen arteko komunikazioa errazteko.

### *Ebaluatzeko irizpideak eta prozedurak*

- Ikasturtearen hasieratik ematea egingo diren ebaluazio probei buruzko argibide zehatzak eta irizpide horiei eustea.
- Komenigarria izan daiteke aldeztu aurretik tutoretzen bidez aztertzea ea baden ikaslearentzat bereziki desegokia den ebaluazio metodoren bat.
- Irakasleak manipulazio zailtasunen bat badu, idatzizko azterketak ordenagailuz egiten uztea. Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzua arduratzen da azterketak egiteko ordenagailua kudeatzeaz eta uzteaz.
- Beharren arabera, atsedena hartzen, komunera joaten, zerbait jan edo edateko eten bat egiten... uztea.
- Azterketa beste ikasgela batean egiteko aukera ematea.

### 7.4. Laguntzarako baliabide pertsonalak eta teknikoak

- Ikasle boluntarioak, apunteak hartzen laguntzeko.
- Azterketak egiteko eta apunteak hartzeko ordenagailua.



- Postura kontrolatzeko egokitzapenak: altzari egokituak, ortesiak...
- Autokopiatzeko paperezko koadernoak, apunteak hartzeko.
- “eGela” plataforma.

# D

---

UPV/EHU-KO EZGAITASUNAK  
DITUZTEN PERTSONENTZAKO  
ZERBITZUA

---



Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzua desgaitasunen bat eta, oro har, hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen artean aukera berdintasunaren printzipioa bermatzeko asmoarekin sortu zen, ikasle horiek ikasketak egiteko, zerbitzuak jasotzeko eta unibertsitatean bete-betean parte hartzeko aukera izan dezaten.

2001. urtean, Gobernu Kontseiluak desgaitasunak dituzten Unibertsitateko Kideak UPV/EHU-n Integratzeko I. Plana onartu zuen, Ikasleentzako Argibide Zerbitzuak prestatua. Horren ondorioz, Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzua sortu zen 2003ko abenduan. 2012an, Gobernu Kontseiluak UPV/EHUko II. Inklusio Plana (2012-2017) onartu zuen, ikasleekiko arreta hobetu nahian. Gaur egun, Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzua Ikasleen eta Enplegarritasunaren arloko Errektoreordetzaren mende dago, eta UPV/EHUko hiru campusetan ditu arreta unitateak: Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan.

Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzuaren bitartez, UPV/EHUk II. Inklusio Planean jasota dauden esku-hartzeak garatzen ditu. Fakultate nahiz eskolekiko koordinazioa ezinbestekoa da aniztasunari erantzun egokia eman ahal izateko.

Ilido horretan, unibertsitate zentro bakoitzeko dekanotza taldeko edo zuzendaritza taldeko kide bat hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen eta aipatutako koordinazio lanaren arduraduna da.

## **Ikastegietan esku hartzea**

Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzuak hasiera-hasieratik biltzen ditu ikasleen premiak, eta irakasleei ezagutarazten dizkie, aintzat har ditzaten euren jardunean eta lagungarriak izan dakizkien irakasten dituzten irakasgaien diseinu inklusibo bat prestatzeko. Gainera, zerbitzua funtsezko euskarria da irakaskuntzarako, curriculum egokitzapenen ezarpen posibleei buruz aholku ematen duelako, batetik, eta irakasleen eta hezkuntza premia berezidun ikasleen arteko bi-tartekaritza lanak egiten dituelako, bestetik. Jarraian, azalduta datoz Zerbitzuak unibertsitate zentroekiko harremanean egin ohi dituen funtsezko esku-hartzeak:



- Zerbitzuak, unibertsitateko ikasleen premiak aztertu ostean, desgaitasunak edo/eta hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleek unibertsitateko ikasketak egiteko beharko dituzten neurri eta baliabideak kudeatzen ditu, behar horiei erantzungo zaiela bermatuz eta ikasle horiek unibertsitateko jardueretan eta ikaskuntzan parte hartzea errazten duten giza baliabideak nahiz baliabide teknikoak eskainiz.
- GAUR aplikazioaren bidez, ikastegian desgaitasunak eta oro har hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen errolda helarazten dio ikastegi horretan ikasle horien ardura duen pertsonari, zeina baita zuzendaritza taldeko edo dekanoko taldeko kidea. Errolda horretako informazioa isilpekoa da, eta Datuak Babesteko Legeak babesten du (Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa).
- Irakasleei informazioa eta aholkua ematen dizkie, GAUR aplikazioko “gelako zerrendak” izeneko ataletik kontsulta ditzaketen txostenen bidez. Txosten horietan jasota daude irakats jarduerarako jarraibideak, bai eskola eta praktiketan erabiltzekoak, baita azterketetan erabiltzekoak ere (inoiz ez dira ezagutzera ematen diagnostikoak, Datuak Babesteko Legean ezarritako lerroei jarraituz, zeinak debekatzen duten informazio jakin batzuk transmititzea, baldin eta ez badira guztiz ezinbestekoak edo ikasleek ez badute berriaz eskatzen).
- Ikastegiarekin eta irakasleekin koordinatuta, ikasleari laguntzeko plan bat aktibatzen du (irisgarritasun fisikoko neurriak, materialak eta euskarriak eskuratzekoak; antolakuntzako neurriak; tutoretzak; azterketak egokitzeko neurriak; praktikak egokitzeko neurriak...).
- Irakasleen eta ikasleen arteko bitartekaritza lanak egiten ditu etengabe, ikasturte osoan zehar. Zerbitzuak betetzen duen laguntza lan horren helburua da aholku ematea hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen beharren interpretazioari eta egokitzapenari buruz, eta erantzukidetasunezko jarrera bultzatu nahi du, une oro.
- Irakaskuntzarako lagungarriak diren ikus-entzunezko materialak egokitzeez arduratzen da (azpтитuluak).
- Irakasleei eta administrazio eta zerbitzuetako langileei aholku ematen die hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleei eskaini beharreko arretari buruz.





- Desgaitasunari eta hezkuntza inklusiboari buruzko sentsibilizazio eta prestakuntza jarduerak antolatzen ditu ikasleentzat, irakasleentzat eta administrazio eta zerbitzuetako langileentzat.

## Zerbitzuarekin harremanetan jartzeko datuak

Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzuak unitate bana du UPV/EHUko hiru campusetan:

- Gipuzkoako Campusa:  
Ignacio M<sup>a</sup> Barriola Zentroa.  
20018 Donostia.  
Telefonoak: 943 01 8137/ 943 01 5184.
- Bizkaiko Campusa:  
Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko beheko aldea.  
Sarriena auzoa z/g, 48940 Leioa.  
Telefonoa: 946 01 2258.
- Arabako Campusa:  
Arabako Campuseko Errektoreordetza.  
Komandante Izarduy kalea 2, 01006 Vitoria-Gasteiz.  
Telefonoa: 945 01 4343.

Harremanetarako helbide elektronikoa: [discap@ehu.eus](mailto:discap@ehu.eus)

Web-ataria: <http://www.ehu.eus/discapacidad>